

Zainteren hirirako trantsizioa egiten

**Bilboko udalerriko zainteren gizarte-antolaketa
eratzeari buruzko hausnarketa batzuk**




Mila Amurrio (koord.)
Ane Larrinaga
Matxalen Legarreta

Maria Jose Martinez
Andere Ormazabal
Marina Sagastizabal

Zainketen hirirako trantsizioa egiten

**Bilboko udalerriko zainketen gizarte-antolaketa
eratzeari buruzko hausnarketa batzuk**



Mila Amurrio (koord.)
Ane Larrinaga
Matxalen Legarreta

Maria Jose Martinez
Andere Ormazabal
Marina Sagastizabal

Liburu hau UPV/EHUren eta Bilboko Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren esparruan egin da, Bilboko udalerriko zainketei buruzko esparru teoriko partekatua eraikitzea, diagnostikoa, prestakuntza eta ekintza-proposamenak bideratzea helburu izan dituen ikerketa proiektu bat egiteko, 2021ean.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA
CAMPUS
DE EXCELENCIA
INTERNACIONAL



Tituloa: Zainketen hirirako trantsizioa egiten. Bilboko udalerriko zainketen gizarte-antolaketa eratzeari buruzko hausnarketa batzuk.

Egileak: Mila Amurrio (koordinatzailea), Ane Larrinaga, Matxalen Legarreta, Maria Jose Martinez, Andere Ormazabal, Marina Sagastizabal.

2023

Ilustratzailea: Ruth Juan
junitamakina.es

Itzulpena euskarara: Hori-Hori.
Arbidea 1, behe. 48004, Bilbao. www.hori-hori.eus.

Diseinua eta maketazioa: Marra S.L.

Imprimategia: Printheus, S.L.

Lege Gordailua: Bi 00728-2023

ISBN: 978-84-125598-2-8

Aurkibidea

Sarrera	5
I. Zatia	8
1. Hiria, garai-aldaketaren trantsizio-ardatzat hartuta	8
1.1. Zainketen agenda publikoa osatzeko bidean	12
1.2. Udal-jarduketaren gidalerroak	18
1.3. Esperientzia berritzaile batzuk	22
2. Zaintzak zer diren eta nola antolatu	34
2.1. Kontzeptualizazioa, abiapuntutzat hartuta	34
2.2. Zainketak eta zainketen antolaketa	44
II. Zatia	48
3. Zaintzak, Berdintasun Arloaren ikuspegitik	48
4. Zainketen gaineko hausnarketa-prozesua	56
4.1. Ikerketa-Ekintza-Parte hartzailea	56
4.2. Prozesuaren balorazioa	62
Etorkizuneko jardunerako gomendioak	70
Erreferentzia bibliografikoak	74
Eranskina: Haurtzaroari eta mendekotasunari buruzko eskumenen esparrua	84

Sarrera


Bilboko Udalaren Berdintasun Arloak eskatuta, zainketen gizarte-antolaketari buruzko ikerketa-proiektua egin dugu, eta honen bitartez azaldu nahi dizuegu proiektu horren garapena nolakoa izan den. Esku artean dugun gaia konplexua da. Izan ere, lehenik eta behin geure buruari galdetu beharko diogu, zaintzeari buruz hitz egiten dugunean, zehatz-mehatz, zertaz ari garen. Zaharrak zaintzeaz? Mendekotasun-egoeran daudenak zaintzeaz? Haurrak zaintzeaz? Herritar guztiak zaintzeaz?

Zainketen kontzeptua soziologiaren, ekonomiaren eta antropologiaren arloetatik landu da, besteak beste, baina, nahiz eta hainbat diziplinatako lan zientifikoetan jorratu, oraindik ere ez dago argi kontzeptu horren definizioa. Hala ere, zainketen gizarte-antolaketari buruzko azterketa horiek baliagarriak izan dira zaintza-lanak familian, komunitatean, merkatuan, Estatuan eta, oro har, zainketak ematen diren eremu guztietan, nola egituratzen diren hobeto ezagutzeko. Aldi berean, azterlan horien bitartez identifikatu dira zer arauen edo balioren arabera antolatzen eta birsortzen den zaintzei lotutako zereginen eta arduren banaketa desorekatua. Desoreka horiek atzean uzteko, berriro pentsatu behar dugu zaintzea zer den eta zer esan nahi duen zaintzeak edota zaintza jasotzeak.

Zaintza-lanen banaketa desorekatua amaitzeko, lan hori erantzukizun kolektibotzat ere hartu beharko dugu, eremu indibidualera edo pribatura soilik mugatu gabe. Horrek berekin ekartzen du zaintza-zerbitzuak eskuragarriak eta profesionalak eskatzeko eskubidea aldarrikatzea. Behin eskubide hori aitortuta, aintzat hartu beharko da zaintza-lanak balio materiala eta sinbolikoa dituela, eta gako dela herritarren eta herriaren ongizaterako eta birsortze sozialerako.

2021-2022 ikasturtean gauzatu dugun ikerketa-ekintza-parte hartzailean eraiki dugu zainketen gaineko kontzeptualizazio bat, eta partaideen artean adostu dugu. Prozesu horren abiapuntua erakundeen zein komunitatearen jardunaren gaineko hausnarketa izan da. Hala, zaintza-lanari balioa emanda, zaintza-jardunbide horiek zabaltzeko aukera eman dezaketen zenbait lehentasun ezartzen saiatu gara.

Ikerketa-ekintza-parte hartzailearen estrategian sustatzen da aztergaitzat hartutako egoeran parte hartzen dutenek erabakietan demokratikoki parte hartu ahal izatea. Hausnarketa kolektibo horretan parte hartu duten pertsona batzuek egunero jarduten dute zaintza-lanak ematen eta antolatzen, beraz, gaiari buruz asko dakite; beste batzuk, ordea, zaintza-lanen eremutik urrunago daude egunero. Dena den, partaide guztiok elkarrengandik ikasi dugu gure artean eraiki dugun espazio horretan.





1. Zatia

1. Hiria, garai-aldaketaren trantsizio-ardaztatzat hartuta

Azterlan jakin batzuen arabera, aldagetakz beteriko gizarte batean bizi beharrean, gizartearen aldaketa bizitzen ari gara (Subirats, 2011). Azken bi hamarkadetako literatura zientifikoko diziplinen bitartez –besteak beste, natura-zientzien, bizitza-zientzien eta gizarte-zientzien bitartez– zehazten hasi da XXI. mendeko gizarteek zer-nolako erronkei ezinbestean aurre egin beharko dieten, bizirik irauteko eta herritarrei bizitza duina eta bidezkoa eskaini ahal izateko. Dena den, zientziaren arloan ez ezik, gizartean ere –erakunde publikoetan, gizarte-eta komunitate-mugimenduetan eta elite politikoetan– aho batez onartzen da askotariko adierazpenez osatutako trantsizio bat abiarazi behar dela, erronka horiei erantzuteko. Adierazpen horietako batzuk ekonomiko-teknologikoak, ekologikoak eta energetikoak, kulturalak eta politikoak dira; eta, aldi berean, dimentsio horiek guztiak elkarri oso lotuta daude.

Honako hauek dira mende honetako gizarte berantiar modernoetako garai-aldaketaren ezaugarri nagusiak, arlo sozio-ekonomikoan eta arlo politikoan: merkatuen joera globalizatzaileak, ongizate-estatuen eta politika publikoen gainbehera, zainketen eta herritartasun sozialaren krisia, lan-prekarizazioa eta merkatu globalen deserregularizazioa. Prozesu horiek herritar askoren bizi-baldintzak kaltetu dituzte, eta pertsonen babes eta kalteberatasun gero eta handiagoa azaleratu dute. 2008an *Atzeraldi Handia* izeneko krisia hasi zen, eta, duela gutxi, 2020tik aurrera, COVID-19ren ondoriozko pandemiak ezin ageriago utzi du zainketen krisia. Bi krisi horien ondorioek are gehiago azpimarratu dute aurrean ditugun erronken tamaina, eta, hartara, beste gizarte-eredu batzuetara aldatzeko trantsizioak bizkortu behar ditugula, gaur egungo ereduak eutsiezinak direlako.

Horren harira, zainketen krisiak erakutsi du arrazoi material, praktiko eta etikoengatik, zainketak eta ongizatea emateko esparruaren mugak zabaldu behar direla, hau da, familiaren mugak eta eremu pribatuaren mugak zabaldu behar direla, eta ardura horren kudeaketan eta gauzatzean ezinbestekoa izango dela hainbat erakunderen eta gizarte-eragileren parte-hartzea (Ezquerria eta Mansilla, 2018; Ezquerria, 2019; Ezquerria eta de Eguía Huerta, 2020). Eragile horien artean bi eragile mota espezifiko daude, eta batak eta besteak eremu publikoari buruzko irudi zabalagoak hartzen dituzte barne. Honako

hauek dira: batetik, hainbat mailatako botere eta gobernu publikoak; eta, bestetik, komunitatea, batzuetan ekimenak garatzen baitira komunitateen eta lankidetzako jardunbideen bitartez, zainketak familiatik eta eremu pribatutik ateratzeko (Vega, Martínez eta Paredes, 2018).

Testuinguru horretan, hain zuzen ere, are garrantzitsuagoa da arlo horretako politiken zeregina. Zainketak antolatzeko politikek aldatu egiten dute zainketa arazo indibidual eta familiartzat hartzeko pentsamoldea; beraz, politika horietan onartzen da zainketa-lana gizarte-gaia dela, eta erakunde publikoek lagundu behar dutela. Horrenbestez, politika horiek zainketen gaineko ardura beste era batera banatzea proposatzen dute (Comas-d'Argemir, 2014).


Herritarrei zuzendutako politiketan behatu da politikak “hurbiltasunerantz biratu direla” (Gomà eta Ubasart, 2021); eta, gure ustez, nabarmentzekoa da joera hori. Industrializazio-prozesua hasi zenetik XX. mendera arte, estatuak soilik arduratzen ziren gizarte-antolaketa eta -horniduraz. Garai-aldaketan, ordea, badirudi hiri-sareak erdigunean jartzeko trantsizioa osatuko dela; eta, estatua deszentralizatzeko prozesuak direla-eta, estatu-mailaren azpiko erakunde hornitzaileek, adibidez, autonomia-erakundeek (Euskal Autonomia Erkidegoak, besteak beste), rol handiagoa izango dutela. Hala, estatu-egoerarekin batera, tokiko egoerak ere komunitateko arreta eta laguntza baldintzatzen ditu neurri handian (Bureau eta Kröger, 2004); hortaz, herritartasun sozialaren mugak berriro zehazten ari dira, hiriek gizarte- eta ongizate-politikak beren gain hartu ahala (Kazepov eta Barberis, 2017).

Hiriei gero eta protagonismo handiagoa emateko trantsizioa dagoeneko ez da utopikoa. Gaur egungo hiri-aroak ez dauka aurrekaririk historian. NBERen Habitat III izeneko goi-bilera Quiton egin zen, 2016an. Goi-bilera horretan adierazle ezin argiagoa egiaztatu zen: munduko lagun gehienak, zehatz-mehatz, lagun % 54 hiri-eremuetan bizi dira. Gaur egungo dinamikak aurrera jarraituz gero, 2050ean munduko lagun % 70 biziko dira hirietan. EAEn ere antzeko joerak osatu dira: Bilboko metropoli-eremuan jada EAEn biztanle guztien ehuneko handia (zehazki, 2.193.199, guztira) bizi da. Biztanle-eredu hori tokiko zein munduko eremuetan hedatu da, beraz, baliteke udalgintza izatea herritartasun-proiektu berrien motor instituzionala. Ildo horretatik, Gomà eta Ubasart (2021) adituek aipatu duten bezala, hiri-biztanleen gorakada ekarri duten joera demografikoekin batera, bi prozesu gehiago erabakigarriak izan dira zentraltasuna indartzeko, agenda sozialari dagokionez: batetik, zainketen eta zainketen dimentsio komunitarioaren gaineko

politiken premia dugu; eta, bestetik, hiriaren aldeko eskubideen politikak. Biak uztartuta, pentsa daiteke hurbiltasun-politikek eta udalgintzak protagonismo handia izango dutela ardatz sustatzaile gisa.

Comas-d'Agemir (2017a) adituak aipatu duen bezala, hiri-eremuko politika publikoak ezinbestekoak dira zaintza-zerbitzuak emateko, eta, zehatzago esanda, herritar guztiei zaintza-zerbitzu eskuragarriak emateko. Horrela, diferentziak orekatuko dira zaintzak merkatuan erosi ditzaketen familien eta zaintza-lana erosi ezin duten familien artean. Erosten ez direnean, familiakoek zaintza-lanak egin behar dituzte, beraz, beren diru-sarrerak behera joango dira. Ildo horretatik, kontzeptualizazio berriak plazaratu dira, eta zainketak hiriaren eremuan txertatzen dituzte gobernantza-sistemen eta hiri-plangintzaren bitartez, hiri lagunkoiagoak eta bidezkoagoak izango direlakoan (Power eta Williams, 2020).

Alde batetik, hirietan ezin argiago erakusten dira zainketen gaur egungo gizarte-antolaketan gertatzen diren kontraesanak, baita lanaren arabera sexu-banaketa-eraren ondorioak ere. Hiri inklusiboagoak nahi baditugu, hiriak berdinzalea izan beharko du, eta, horretarako, herritarren premia eta eskaera anitzek erantzun beharko diegu. Beste alde batetik, tokiko esparrua gero eta garrantzitsuagoa da, ikuspegi politikotik (Trounstone, 2009). Hiria toki pribilegiatua da, eta bertan herritarren eskubideak gauzatzen dira. Herriartasuna eraldatu nahi badugu, pertsona guztien eskubideak, emakumeenak barne, kontuan hartu behako ditugu, eta, horretarako, ezinbestekoa da zainketa-lanak gure gizartean duen garrantzia aintzat hartzea. Hurbiltasunaren eta egunerokotasunaren logika hiri-plangintzan eta garapenean txertatu behar da udal-politiken bitartez, eta, horrek bidea erraztuko du gizarte bizigarriagoa eta inklusiboagoa eratzeke, baita hiria pertsonen ezaugarrien eta premien arabera hobeto moldatzeko ere.



1.1. Zainketen agenda publikoa osatzeko bidean

Gobernantzan eta tokiko administrazioan berrikuntzak egitea

Udal-gobernantzaren eredia eta udal-administrazioaren funtzionamendu tradizionalak berritzea ezinbesteko aurrebaldintza da, zainketei buruzko udal-politika publikoak eta komunitatearen ekimenak agenda bateratu batean integratzeko.

Tokikotasun berriaren (Clarke, 1993) ezaugarri nagusia tokiko gobernuaren kontzepzio tradizioaletik gaur egungo gobernantzaren ereduetara aldatzeko trantsizioa da. Azken horiei gobernu erlazionalak ere deitzen zaie, eta parte-hartzeko modu berri bat proposatzen dute, non agintariek eta politikaren arloko eliteek aintzat hartu behar baitute haien jardunean askotariko eragile publikoek, komunitarioek eta pribatuek parte hartzen dutela. Tokiko gobernantzaren oinarritzko ereduaren erlazioak ezartzen dira agentzia publikoen artean, baita agentzia publikoen eta herritarren artean ere, eta, behin erlazio horiek ezarrita, erabakiak hartzen dira (Goss, 2001). Ildo horretatik, honako hauek dira tokiko gobernantza ezaugarritzen eta legitimatzen duten alderdiak: herritar zibilen parte-hartzea sortzea eta sustatzea eta ordezkagarritasunean oinarritutako gobernuaren lidergoa gauzatzea; horrez gain, udal-kudeaketaren eredia irekita dago herritarrentzat eta komunitatearentzat. Gobernantzaren subjektua dagoeneko ez da pertsona administratua (gobernu tradizionalen ereduetan gertatzen zen bezala), ezta bezeroa ere, baizik eta herritar aktiboa, eskubide-subjektua eta ongizatearen (ko)produktzioan inplikaturik. Horiek horrela, gobernatzeko modu tradizionalen, autosufizienteen, bertikalen eta zurrunen eta gerentzialismo publikoari lotutako merkatuen ereduak alde batera utzita, sareko gobernu modu berrietatik abiatuta garatu behar da gobernantza. Horretan askotariko eragile sozialek modu horizontalean (*policy networks*) parte hartuko dute; eta askotariko gobernu-mailek, modu bertikalean (*multilevel governance*) (Bonet-Martí, 2021).

Azken urteotako tokiko demokraziaren krisiari erantzuna emateko, tokiko kudeaketaren eta gobernuaren erreformak eta berrikuntzak garatu dira: batetik, ordezkari ari diren erakundeak berpizteko; eta, bestetik, legitimitate demokratikoa indartzeko, herritarrek kudeaketa publikoan sartuta, pentsatzen baita herritarrek zenbat eta parte-hartze handiagoa izan, orduan eta handiagoa izaten dela demokrazia (Pastor Seller, 2008).

Udal-jardunean herritarrak ahalduntzeko prozesuak kontuan hartu eta gero, ezinbestekoa izan da agenda feminista ere udal-politiketan pixkanaka sartzea. Hori dela eta, emakumeei aspalditik eragin dieten gaiak kontuan hartu dira, tartean, indarkeria matxista, zainketak eta abar. Alejandra Massolo-ren ustez (2003), genero-ekitatea sustatzeko politikak eta ekintzak sortzea da udal-gobernuaren berrikuntzan erresistentzia handiena topatzen duen aldaketa. Izan ere, politika eta ekintza horiek eskatzen dituzte, bai erlazioen arloko aldaketak –tokiko gobernuaren, gizarte zibilaren eta komunitatearen arteko harreman eta elkarbizketa modu berriak–, baita kulturaren eta jokabideen arloko aldaketa sakonagoak ere, hau da, jarrerak, balioak eta jokabide-ereduak sakon aldatzea. Hortaz, oso garrantzitsua da udalerrietako zenbait agertoki instituzional berritzea eta beste modu batean diseinatzea, genero-ikuspegitik zeharo baldintzatzen baitute herritarren parte-hartze inklusiboa (Larrinaga eta Amurrio, 2013).

Udal-gobernuaren moduak, hainbat gobernantza ereduak ezarrita, aldatzeaz gain, tokiko administrazioaren eta kudeaketa publikoaren moduetan ere berrikuntzak egin beharko dira, zainketen hirira abiatzeko trantsizioan. Testuinguru sozial, ekonomiko eta politikoan eraldaketa sakonak gertatzen ari dira, eta administrazioek testuinguru horretan jarduten dute, beraz, zentzuzkoa da administrazioak berritu beharra. Horrez gain, aspalditik konpontzeke dauden arazoei erantzuna eman behar zaie. Berrikuntza horrek bi alderdi ditu: alderdi instrumentala (jarduketaren eraginkortasuna hobetzen duten teknikak eskuratzea) eta alderdi substantziala (errealitateari beste modu batean heltzeko eta egoera eraldatzeko gaitasunak eskuratzea). Berrikuntza, berez, ez da helburua, tresna baizik, politika publiko batzuen premiak eta porrotak konpontzeko.

Brugué, Boada eta Blanco (2012) adituen ustez, zenbait eragile eta baldintza, hala nola ingurune politiko eta sozial mesedegarria eta berrikuntza pizteko “motor” jakin batzuk, lagungarriak dira administrazio publikoa berritzeko. Honako hauek dira motor horietako batzuk: eremu akademikotik hainbat gai hobeto ezagutzeko egin diren ekarpenak; beste administrazio batzuekin bizipenak eta jardunbide egokiak partekatzea eta elkartruke horren bidez ikastea; administrazioetako ezagutza-kapitala baliatzea (bertan lan egiten duten teknikariena eta langile kualifikatuena). Kapital horri etekin handiena atera ahal zaio ezagutza kolektiboki sortzea bultzatzen duen antolaketa-eredu baten bitartez. Azken motorra herritarren parte-hartzea da, administrazio publikoen ezagutza- eta sormen-iturritzat hartuta. Aipatu ditugun adituen aburuz, ikuspegi hori baliatuz gero, aurrekontu teknokratikoetatik urrunduko ginateke, eta ezagutza adituaren monopolioa ez litzateke egongo eragile gutxi batzuen

eskuetan. Bestalde, berrikuntza sozialak, bere aldetik, berrikuntza administratiboa elikatuko du; horrela, zirkulu bertutetsua osatuko litzateke, baina, horretarako, gizarte-aniztasuna eta askotariko eragileen arteko elkarrekintza bultzatzeko guneak sortu behar dira, hau da, gobernantza-espazio hibridoak (lehenago aipatuta) eratu behar dira.

Komunitatea eta beste eragile batzuk integratzea

Zainketen arloko sistemen eta eragile tradizionalen krisialdian, gobernantzan eta tokiko administrazioan berrikuntzak egin behar dira, gizartearen inguruabar berrietara moldatzeko, eta, hartara, zainketen gaineko erantzukizun publikoa berritzeko. Izan ere, zainketen arloko krisia trantsizioz beteriko aldian gertatu da. Trantsizioek nabarmen handitzen dute belaunaldien, funtzioen eta familien dibertsitatea. Pertsonen arteko elkarrekintza (autonomia funtzionala, eta eguneroko inklusio erlazionala ere bai) babestu eta sustatu behar den ondare handitzat (osasunaren eta etxebizitzaren parekoa) hartu behar da, erabateko herritartasun soziala bermatzeko (Fantova, 2021). Hori dela eta, honako erronka hau dugu aurrean: gizarte-politikak, ekintza komunitarioa eta, oro har, ongizatea sustatzeko arreta integratua sortzea, komunitateak berriz asmatzeko eta herritarren parte-hartzerako, pertsonen arteko harremanetarako eta bizitzari eusteko zainketa humanizatzaileak sustatzeko guneak izan daitezen (Fantova, 2021). Dagoeneko ezin dugu pentsatu zainketak ematen dituzten erakundeek modu isolatuan jarduten dutenik, erakunde horietan hainbat eremu uztartzen baitira (Razavi, 2007): familia/etxea, sektore publikoa, merkatuak eta irabazi-asmorik gabeko sektorea (horretan sartzen dugu boluntarioen eta komunitatearen ekarpena).

Garai historiko honetan, hainbat prozesu batera gertatzen ari dira, eta gizartearen harreman-bilbe primarioa eta komunitarioa modu esanguratsuan aldatzen ari dira. Hori dela eta, lehen mailako bizikidetzaren sare horiek gero eta zailtasun handiagoak dituzte, orain arte zaintza eta ongizatea hornitzeko esleitu zaizkien funtzioak eskusiboki bete ahal izateko. Aldaketa-prozesu horien artean, honako hauek ditugu: biztanleriaren zahartze progresiboa; pertsona bakarreko etxe-unitate gehiago eratzea; emakumeen lan-jarduera handitzea (Ezquerri, 2019), eta horrek emakumeei eragiten dien lan-karga handiagoa –ondorio horiek teorizatu dira emakumeen presentzia/absentzia bikoitzaren (Balbo, 1994) eta hirukoitzaren teorietan, hau da, emakumeek enpleguan, etxeko lanetan eta partaidetza soziopolitikoan (Sagastizabal eta Legarreta, 2016) izaten duten rolari buruzko teorietan–; familia-egituren bertikalizazioa, baita


horrek eragiten dituen belaunaldiaren barneko loturen murrizketa eta belaunaldien arteko loturen sakabanatzea ere; eta pertsonen mugikortasun geografikoa handitzea (Fantova, 2021). Prozesu horrekin batera, kontuan hartu behar da ongizate-estatuak kaltetu direla, enplegua pixkanaka degradatu dela, eta degradazio horrek bereziki eragin diela emakumeei (Carrasquer, 2013). Horrenbestez, gainerako eragileen eginkizuna –bereziki, botere publikoena– indartu behar da, zainketak bermatzeko. Horri dagokionez, egoera berriak hirietako administrazio publikoei eskatzen die politika publiko eta gizarte-estrategia proaktiboagoak eta anbizio handiagokoak garatzeko, hurbiltasuneko komunitate-bilbe horiek indartu eta berroneratzeko eta gizarte- eta zaintza-politiken koprodukzioan haiekin sinergikoki jarduteko.

Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran daudenei laguntzeari buruzko legea garatu denean, eta Euskal Autonomia Erkidegoan, zehazki, Bizkaian, hedatu denean, biztanle gehienek adina oso handia da, eta zahartze-tasa horrek Espainiako lurraldeari baino gehiago eragiten dio Euskal Autonomia Erkidegoari. Euskal Autonomia Erkidegoen zahartze-indizea % 154,01 da, Estatu espainoleko batezbestekotik gora (% 125,75), beraz, EAE bosgarren postuan dago, indizerik handiena duten autonomia-erkidego guztien artean (Nazioarteko Estatistika Institutua, 2020). Gainera, Europako lurralde zahartuenetako bat da (Eustat, 2018, 2020a). Azken hiru hamarkadetan bizi-itxaropena nabarmen handitu da EAEn. 2018-2019 urte bitartean, gizonen adina 80,5 urte arte iritsi zen Bizkaian; eta 86,3 urte arte, emakumeena (Eustat, 2020b). Era berean, 2001etik aurrera, 20 urtetik beherako pertsonen ehunekoa baino handiagoa da 65 urtetik gorako pertsonena (Eustat, 2020c). Zahartze-prozesuarekin batera, egoera kalteberan dauden eta, hartara, arreta eta zaintza handiagoa behar duten biztanle kopurua ere handitzen ari da. Hori da, hain zuzen, iraupen luzeko zaintza emateko sistemak gaur egun eta epe labur edota ertainean jorratu behar duen erronka handietako bat. Bestalde, zahartze-tasak gehiago eragiten die emakumeei, emakumeen bizi-itxaropena handiagoa baita. Pertsona zaharrenean artean, gizonen tasa baino heren bat handiagoa da emakumeena (Pérez Díaz, 2020), eta ezaugarri hori nabarmenagoa da, adinean aurrera egin ahala. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen artean, emakumeak ere gehiago dira: mendekotasun-tasaren bat aitortu zaien pertsonen ia hiru laurden emakumeak dira. Horrenbestez, argi dago mendekotasunak genero-osagai duela.

Esteban-ek eta Otxoa-kadierazi bezala (2010), familia-zaintza erregulatzen hurbilketa aringarrien orde, kontzeptu-esparru berriak planteatu behar dira, zaintzaren fenomeno ulertzeko. Gaur egun arte, udaleko gizarte-zerbitzuak ongizate-estatuaren azken mailan egon dira. Planteamendu hori kontraesanean dago gizarte-eskubide unibertsalen ikuspegiarekin, eta, askotan, zirkuitu bereziak eta estigmatizatzaileak indartu ditu, kolektibo jakin batzuen premiak kontuan hartzeko orduan (Fantova, 2021). Bestalde, gero eta agerikoagoa da gizarte-talde garrantzitsuen bizi-segurtasunik ezaren eta lan, bizitegi eta ekonomia prekarioko dinamiken aurrean esku hartu behar duten udal-politikek egiturazko, intersektzionaltasunez, zeharkakotasunez eta sailen artean landu beharko dituztela premia horiek. Izan ere, gobernuaren eta tokiko administrazioaren arloek –horrek barne hartzen ditu honako gai hauek jorratzen dituzten arloak: osasuna, enplegua, etxebizitza, berdintasuna, kulturartekotasuna, hirigintza, mugikortasuna, ogasuna, hezkuntza, aisia, kontsumoa eta abar– eta beste administrazio publiko batzuetakoek modu koordinatuan helburuak ezarri eta jarduerak inplementatu behar dituzte. Bestela, gizarte-zerbitzuak kolapsatu egingo dira, premiak asetzeko emaitza onik lortu gabe.

Zainketen hiria osatuko badugu, udaleko politikak ezarri beharko dira, eta balio erantsi handiagoko zaintza-prestazio integralak antolatu beharko dira. Prestazio horiek ezagutzen oinarritu beharko dira, eta gero eta pertsonalizatuagoak, komunitarioagoak eta digitalizatuagoak izango dira, parte-hartzea ere sustatuta. Ikuspegi integral bertikalak eta maila anitzeko gobernantzak sektore barruko eta sektore arteko ibilbideak sustatu behar dituzte, pertsonen babesa eta zaintza integralak eskura ditzaten, esku-hartze publikoen, digitalen eta komunitarioen bidez, jarraitasunez eta hurbiltasunez, pertsonak estigmatizatutako kolektiboetan sailkatu gabe, edo beren bizilekutik, bizilagunetatik eta komunitatetik urrun dauden zentroetara bideratu gabe. Bide horretan botere eta administrazio publikoak –tarte, udal-botereak– behartuta daude lidergo berritzaileak gauzatzera, eskubideak bermatzen dituzten aldetik. Lidergo horiek, gaur egungo baldintzetan, bermatu behar dute ongizatearen eta zaintzaren horniduran *de facto* parte hartzen duten askotariko eragileek dinamizatzeko gaitasunak garatzea. Eragile horiek dira, besteak beste, autoantolaketa komunitarioak, erakunde solidarioak, hirugarren sektorea, enpresa pribatuak eta industria teknologiko eta digitala. Botere publikoen lidergo horiek eta haietatik erator daitezkeen aliantzak gertatu ezean, egungo baldintzetan ezin izango dira bermatu gizarte-herritartasunari lotuta dauden zaintzak, ekitatea, birbanaketa eta gizarte-kohesioa.

Azkenik, gizarte-babeseko politika publikoek funtsezko zeregina bete behar dute lanaren egungo sexu-banaketa ezabatzeko, beraz, etxeko lanak eta zaintza-lanak berrantolatzeko eta birbanatzeko neurriak sustatu beharko dituzte, erantzunkidetasuna abiapuntutzat hartuta. Pertsonen bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko, politika publikoak zainketen zeharkako planteamendu bat txertatu behar du, non emakumeek modu aktiboan parte hartuko duten neurriak lantzean, neurri horiek politika gisa sortzen direnetik ezartzen diren arte, genero-ikuspegia txertatuz, emakumeen aldarrikapenei eta premiei erantzunez, gabeziak hautemanez eta hobetzeko proposamenak ginez (Martínez Herrero, 2021).



1.2. Udal-jarduketaren gidalerroak

Aurreko ekarpenen ondorio gisa, segidan oinarri edo ardatz batzuk jasoko ditugu, gure ustez, ardatz horiek udaleko politikak (berr)eraikitzeke gidalerrotzat hartu beharko lirakeelako, zainketen hiria osatzeko trantsizioan. Oinarri horiek, hein handi batean, gaur egun arte ezarri diren udaleko politikak bertan behera uztea edo aldatzea eragiten dituzte; beraz, eredu berrietara abiatzeko trantsizioaren zutabeak ezartzen dituzte. Honako oinarri hauek bereizi ditugu:

Gizarte-eskubideen unibertsaltasuna, hurbileko politikan gauzatuta

Gizarte-ongizatea herritartasun-eskubidea da, beraz, pertsona guztiek izan behar dute zainketen politiken erreferentea eta xedea. Ildo horretatik, unibertsaltasunak berekin ekartzen du sektore- eta asistentzia-politika hutsak atzean uztea, udalerriko biztanle-sektore batzuk baino ez baitituzte xedetzat hartzen. Orain arte garatutako laguntza-politika publikoek lehentasuna ematen diete kalteberatasun edo premia handieneko gizarte-kolektibo batzuei (mendekotasun-egoeran daudenei, pertsona zaharrei, baztertuak izateko arriskuan dauden haurrei eta abarri). Ikuspegi teorikotik zein politikotik, unibertsaltasuna –gizarte-zerbitzuen ikuspegi murritztaileak gaindituta– bermatu behar da zainketak bizitza duinerako ezinbestekoak direlako eta, hartara, pertsona guztiei, salbuespenik gabe, bermatu behar zaizkielako. Ikuspegi horren arabera, pertsona guztiek, maila eta egoera desberdinetan, zainketak ematen eta jasotzen dituzte, gizarte osoa barne hartzen duten harreman-sareetako kide izanda. Horrez gain, zainketak ematen dituzten sare horiek hurbiltasunean osatzen dira. Izan ere, udal-aginteez beren alde dute politika publikoetatik hurbil jarduten dutela (Pastor Seller, 2008), eta tokiko gizarte-herritarren eskakizunak betetzeko aukera dutela (Kazepov eta Barberis, 2017).

Kudeaketaren zeharkakotasuna

Kudeaketaren zeharkakotasunak bide ematen du gizartearen behar eta eskaeretara hobeto egokitzeko. Horrez gain, jarduera sektorialaren eta tokiko gobernuaren harreman-estrategiaren integrazioa hobetzen du (Serra, 2005). Ildo horretatik, zainketen hirira abiatzeko trantsizioan zaintzak antolatzen dituzten politika publikoak modu integralean eta interkonektatuan (bir)pentsatu eta ulertu beharko dira. Antolakuntza- eta kudeaketa-agindu hori behar dira, besteak beste, hiriko arazoen

konplexutasuna gero eta handiagoa delako, gizarte-premien dibertsifikazioari erantzun behar zaiolako, eta herritarren eskaerak konpondu behar direlako; izan ere, herritarrek gero eta prestakuntza handiagoa dute eta, hartara, gero eta zorrotzago jokutzen dute botere publikoekin. Horren ondorioz, zeharkakotasunak berekin ekartzen du udal-arlo guztiek parte hartzea, guztiek zuzeneko edota zeharkako erantzukizuna baitute horniduran. Hori dela eta, osotasun konplexu batean lotura horiek agerian utzi behar dira. Bestela, ezinezkoa izango da kudeaketa ona ezartzea (helburuak, planak, ildo estrategikoak, programa zehatzak, baliabideak eta abar ezarrita).

Hori nabarmen aldentzen da tradizionalki udal-arloetako jarduketek ezaugarri izan diren planteamendu sektorialetatik. Zainketekin zuzenean edo zeharka lotuta dauden jardunak ez dira Gizarte Zerbitzuen monopolioak, beraz, ezin dira alde batera utzi beste arlo batzuk, hala nola Herritarren Partaidetza, Hezkuntza, Gazteria eta Kirola, Mugikortasuna eta Jasangarritasuna, Hiri Plangintza edo Ogasuna, adibide batzuk ematearren. Hasiera batean oso bestelakoak direla eman arren, honako hauek oso lotuta daude pertsonen zainketarekin eta ongizatearekin: hiria eta bertako espazioen hirigintza-diseinua, mugikortasuna eta garraioa, eskola-jolastokien erabileren kudeaketa, gizarte-etxeetako jardueren antolaketa edota udal-liburutegien erabilera.

Gobernantza kolaboratiboa, herritarren parte hartzera irekia

Gobernantzaren oinarria da, gobernuarekin batera, beste eragile batzuk ere aintzat hartzea, hala nola merkatuan, gizarte zibilean edota tokiko, estatuko eta nazioarteko gobernuko beste eremu batzuetan egon daitezkeen eragileak. Udal-eremuko “gobernantza kolaboratibo eta ireki”aren (Sánchez Ramos, 2017) ezaugarri nagusia da herritarren parte-hartzea bultzatzea, erabaki publikoak hartzeko eta zerbitzuak emateko prozesuetan. Izan ere, herritarren parte-hartzea baliabidetzat hartzen du gobernuaren eta gizarte zibilaren arteko asimetriak murrizteko eta gobernantzaren porrotari aurrea hartzeko. Gobernantza kolaboratiboaren estrategiaren bidez, aukera sorta handia sortzen da, eremu politiko anitza osatzen delako. Eremu horretan kontuan hartzen dira ingurune itxietan aztertu ez diren politika publikoen alderdiak, eta, horrela, berrikuntza-aukera gehiago sortzen ditu politika publikoak egiteko orduan, baina, era berean, politika horien emaitzaren gaineko erantzunkide bihurtzen ditu gobernu eta herritarrak (Sánchez González eta Giraldo Palacio, 2017).


Zainketen eremu zehatzean, gobernantza kolaboratiboak esan nahi du kontuan hartu behar direla udalerriko zainketa-arloan parte hartzen duten gizarte-eragile

guztiak. Askotariko eragileak izan daitezke, eragile komunitarioak, auzoko eragileak eta hirugarren sektorekoak, baita erakunde pribatukoak ere. Gobernantza mota horrek xedetzat hartu beharko luke eragile horiek guztiek, udal-gobernuarekin eta -administrazioarekin batera, zaintza-politika publikoen diagnostikoan, diseinuan, kudeaketan eta ezarpenean parte hartu ahal izatea. Zentzuzkoa denez, parte-hartze mailak askotarikoak izan daitezke, kontsulta-maila hutsetik inplikazio handiagoko beste maila batzuetara, betiere borondate politikoaren, herritarren eta komunitateen sare trinko samarren eta parte hartu behar duten eragileen prestasunaren arabera.

Deszentralizazioa

Deszentralizazioan bi maila bereizten dira:

- Lurraldeko deszentralizazioa edo deszentralizazio geografikoa. Hurbiltasunaren oinarritik abiatuta, udaleko jarduna hobetzeko bide ematen du: auzoen eta barrutien egoera, ziur aski, bestelakoa izango da ezaugarri soziodemografikoak, errenta-mailak, elkarte-jarduera eta gainerakoak nolakoak diren. Horren harira, diagnostikoak ez dira hirian soilik egin behar, bazik eta auzoetan ere bai, biztanleen askotariko egoerak kontuan hartuta. Deszentralizazioak eta boterearen banaketa erretikularrak –barrutietan, auzoetan eta abarretan– hiri-gobernantzaren eredu parte-hartzaileagoa eta kolaboratiboagoa sustatzen dute (González, 2021).
- Funtzioen deszentralizazioa estu lotzen zaio gobernantza kolaboratiboaren oinarriari. Udal-politikak ez dira hutsetik abiatzen, beraz, beste instantzia batzuen lana ere aitortu behar dute (zaintza-sareena, lagun-egiteko sareena eta abar, halakorik egonez gero; eta sare horiek agerian jarri beharko ditugu, eta ahotsa eman beharko diegu). Udal-politikek ez dute lan hori itzali behar, baizik eta aitortu eta indartu, beharrezkoa den guztietan, beren jardueren bidez. Era berean, elkarrekin koordinatu eta lankidetzan aritu behar dute, aipatutako gobernantza bateratuko mekanismoen bidez.




Genero-ikuspegia eta interseksionala

Autore feministek jada azpimarratu dute generoa eta gizarte-maila zainketen osagai historikoak direla (Borderías, Carrasco eta Torns, 2019). Genero- eta sektore arteko ikuspegia zeharkako ardatz teoriko-metodologikoa izango litzateke, udal-politika eta -jarduketa guztietan txertatuko balitz. Ardatz horiek abiapuntutzat hartzen dute, gaur egun, lanaren sexu-banaketa dagoela, eta emakumeek, gehienbat, zaintza-lanak egiten dituztela, bai modu informalean (eremu pribatuan), baita modu profesionalizatuan (lan-merkatuan) ere. Ildo horretatik, zainketen lan-sektorea hedatzeak ez du berekin ekarri banaketa bidezkoagoa; aitzitik, genero-asimetriak indartu ditu, eta legezko babesgabetasun handia eta urraketak eragin ditu zaintza-enpleguetan, tokiko mailan zein nazioz haraindikoan (Roca i Escoda, 2019; Díaz Gorfinkel, 2019).

Udal-politikak, ordea, ezin du genero-aldagaia soilik kontuan hartu. Teoria kritiko feministak proposatzen du jardun publikoa modu ez binarioan egituratzea, eta interseksionalitateak, tresnatzat hartuta, horretarako ematen dituen aukerak esploratzea (Martínez-Palacios eta Ormazabal Gaston, 2022). Zainketen egungo egoeran ardatz interseksionalak txertatuko balira, aukera egongo litzateke, zainketetan generoaren eta klasearen markak identifikatzeaz gain, adina, arraza eta testuinguru geopolitikoak ere identifikatzeko –baita horrek dituen ondorio migratzaileak ere– (Federici, 2015). Hori dela eta, udaleko politiketan arretaz aztertu behar da, besteak beste, adineko pertsonak ote diren gehien zaintzen dutenak, edo emakume arrazializatu eta migratuak ote diren lan horiek egiten dituztenak, batez ere, bertakoak deituriko biztanleriari zuzenduta

Azkenik, Gómez-ek (2017) adierazi duen bezala, berdintasunaren eta parte-hartzearen arloko politika publikoek “itsasargi politikak” izan behar dute, eta erakundeek jarduna gidatu behar dute. Agenda espezifikoak duten sektore-politikak izateaz gain, zeharkako politikak ere izan behar dute. Zeharkako politikek kapitalaren eta bizitzaren arteko gai gatazkatsua gidatu behar dute, gizarte-antolamendu berria eta antolamendu horri eutsiko dion instituzionalitate berria osatzeko trantsizioan. Laburbilduz, politika horiek iparrorratz jardungo dute, eta gainerako politikei beste eredu batera iristen lagunduko diete. Zentraltasun hori, gainera, erakundeek diseinu antolatzailean islatu behar da.



1.3. Esperientzia berritzaile batzuk

Jarraian esperientzia berritzaile batzuk azalduko ditugu. Esperientzia asko egon arren, horiek hautatu ditugu aurreko atalean zainketen arloko udal-politikak berritzeko oinarritzat hartu ditugun gida-printzipio guztiak edo, behintzat, batzuk betetzen dituztelako. Hori dela eta, zainketen hiria osatzeko trantsizioan sortzen ari diren jardunbide egokien eredutzat hartu ditugu. Zehazki, honako hauek dira:

Bilboko Udalaren I. Osasun Plana

Bilboko Udalaren I. Osasun Plana¹ 2019-2023 aldirako diseinatu eta ezarri zen, eta osasuna babesteko, prebenitzeko eta sustatzeko jardueren esparru estrategikoa ezartzen du. Lehenetasuna eman zaio hiri-eredu osasungarria sustatzeko helburuari. Hori dela eta, jarduketa horiek herritarren zaintza eta ongizatea zuzenean jorratzen dituzte, osasuna eta ongizatea udal-politikaren erdigunean jarri baitute. Horri dagokionez, planak abiapuntutzat hartzen du hiria, berez, hiritarren bizitza-, ongizate- eta osasun-garapenerako aukerak eratzeko eremu bihurtu dela.

Planean ezartzen dira osasunaren aldeko gobernantzaren udal-oinarriak. Ildo horretatik, abiapuntutzat hartu dute osasun-sektorearekin bat ez datozen jardueraren eremuetan eta politiken sorreran dagoela herritarren osasuna hobetzeko eta hiriko osasun-desberdintasunak murrizteko potentzial nagusia. Udal-eremuak osasun-laguntzaren gaineko eskumenik ez badu ere, funtsezko zeregina betetzen du osasuna sustatzeko eta babesteko esparruetan. Horrek aukera ematen dio, jarduketan bidez, osasunaren gizarte-baldintzatzaileak –gizarte-desberdintasunak, gizarte-bazterkeriako egoerak, ingurune fisiko degradatuak eta abar– bideratzeko eta ekitatearen ikuspegia baldintzatzaileotan txertatzeko.

Ildo horretatik, planean proposatzen den gobernantza-ereduaren oinarriak segidan aipatuko ditugu. Lehenik eta behin, jarduketetan kontuan hartu behar dira hiriaren osasunean parte hartzen duten eragile guztiak: tokiko administrazioa eta beste maila administratibo batzuk, gizarte-eragileak, herritarrak eta sektore pribatua. Bigarrenik, udal-arlo guztien jarduketa koordinatua eta sinergikoa garatu behar da. Hirugarrenik, herritarrak ahaldundu behar dira, eta aurrera egin behar da udal-ekintzaren birbideratze komunitarioan. Udal-zerbitzuek sareak sustatzeko eta ekintza komunitarioa errazteko rola hartu behar dute. Laugarrenik, herritarren parte-hartzea sustatu behar da, herritarrek kolektiboaren gaitetan parte har dezaten. Bosgarrenik, gardentasuna sustatu behar da eta jardunari buruzko informazioak eskuragarria izan behar du. Seigarrenik, onartu egin behar da osasuna justiziaren oinarrietako bat dela, gizartearen desberdintasuna murrizten laguntzen duelako. Inbentarioaren amaieran ezarritako oinarrietan zainketen gaineko konpromisoa esplizituki azaldu dute.

1 Bilboko Udala (2019): Udalaren I. Osasun Plana (2019-2023)
<https://kontumatea.irekia.euskadi.eus/bilbao/eu/act/110>

Konpromiso hori dela eta, *“desberdintasun horiek gertatzen direneko esparru pribatua edo familiartekoa esparru publikora ekarri behar da”*. Horren harira, hauxe dio (18. or.): *“Hiri-politikak, alde batetik, ugaltzeari lotutako zereginak birbanatu daitezzen ahalegindu behar dira eta, generoaz gain, beste desparekotasun-ardatz batzuk ere aintzat hartu behar dituzte, hala nola gizarte-maila, etnia edo jatorria; zaintza-lanen garrantzia ikusarazi eta balioztatu behar da, eta ekoizpen-lanean erabilitako denbora berrantolatu behar da, zeregin horiei lotzeko aukera eta erabakia norbanako bakoitzaren esku utzita. Era berean, hiri-politikak zaintza-lan ez-formalak erraztu behar ditu eta horiei eusteko zerbitzuak hornitu behar ditu, bai eta zaintzaileentzako baliabideak eskaini eta laguntza eman ere”*.

Bestalde, hiriaren ingurunea zaintza-lanetan aritzeko eremutat hartzen du (18. or.): *“... ikuspegi hori hiri-plangintzan eta -diseinuan txertatu behar da, eta udalaren zerbitzuak eta prestazioak hauexek errazteko egokitu behar dira: zaintza-lanak ahalbidetu behar dituzte, eta denbora-tarteen erabilerak bateragarriak izatea sustatu behar dute; pertsona guztiek autonomia-mailarik handiena izan dezaten sustatu behar dute, eta, aldi berean, zerbitzu eta oinarrizko ondasun guztietarako irisgarritasuna eta eskuragarritasuna eskaini behar diete pertsona guztiei; jarduera fisikoa eta ohitura osasungarriak bultzatu behar dituzte, eta mota guztietako kutsaduraren eragina prebenitu behar dute; eta gizarte-harremanak nahiz kontsumoari lotzen ez zaion aisialdia sustatu behar dituzte”*.

Azkenik, osasunaren aldeko gobernantzan honako hauek ere kontuan hartzen dira: pertsonen ongizatera bideratutako eredu ekonomiko baten aldeko udal-konpromisoa –tokiko edo hurbileko ekonomia mota baten aldekoa–, eguneroko bizitzako ondoezak estaltzeko udal-erantzukizun publikoa eta administrazioaren funtzionamenduan informazioaren eta ebaluazioaren kultura garatzea. Zeharkako ardatzak, besteak beste, ekitatea, genero-ikuspegia, herritarren parte-hartzea eta osasunaren gizarte-baldintzak dira.

Osasun-planaren zeharkakotasuna, sailarteko parte-hartzeari dagokionez, agerikoa da, eta, zehazki, honako hauek inplikatu dira: Bilboko Udalaren Gazteria eta Garraioa, Gizarte Ekintza, Herritarren Arreta, Partaidetza eta Barrutiak, Kultura, Ekonomia eta Ogasuna, Euskara eta Hezkuntza, Berdintasuna, Lankidetza, Bizikidetza eta Jaiak, Mugikortasuna eta Iraunkortasuna, Obrak eta Zerbitzuak, Hiri-birgaitzea eta Espazio Publikoa, Hiri-plangintza, Kontratazioa, Bilbao Kirolak, Bilbao Ekintza eta Udal Etxebizitzak (udal-erakundeak). Gaien zeharkakotasuna ere agerikoa da, planen ardatzei erreparatzen badiegu. Honako hauek dira: osasunaren

gizarte-baldintzatzaileak, ekitatea, genero-ikuspegia, osasunaren ikuspegi positiboa eta herritarren parte-hartzea.

Ildo beretik doaz planaren ardatz estrategikoak eta haietatik eratortzen diren jarduketak: “osasuna, udal-politikaren ardatza izatea” (1. ildo estrategikoa); unibertsaltasunaren oinarriak azpimarratzea (2. linea estrategikoa: bizi zikloan zehar eta gizarteko taldeetan osasuna eta bizitzarako trebetasunak sustatzea; eta 4. ildo estrategikoa: oinarritzko baldintzak, bizitza osasuntsua izateko); *gobernantza* eta *deszentralizazioa* (5. ildo estrategikoa: auzoa eta bere aktiboak, osasuna sortzeko elementu gisa); eta genero-ekitatearen ikuspuntua (4. ildo estrategikoa: oinarritzko baldintzak, bizitza osasuntsua izateko). Horiek guztiak garrantzitsutzat hartu ditugu, zainketen eredu berriak sustatzeko.



Hernanin zainketak demokratizatzeko sustatu duten proiektua

Hernaniko udalerriaren ekintza-planak eredu berritzaile baten erakusgarri dira. Eredu hori sinergiak bateratzean oinarritzen da: tokiko gobernuaren eta administrazioaren sinergiak, bai eta sare publiko komunitario baten eta zainketen hirugarren sektorearen sinergiak ere; eta guztiak aurkezten dira zainketen koekoizle gisa. Hernaniko udalerriaren zainketa-proiektua² Gipuzkoako Zaintza HerriLab Estrategian txertatuta dago gaur egun. Lehenengo urratsen abiapuntua Beterri-buruntza eskualdeko zaintza zerbitzuen premien eta mendekotasunaren gaineko erradiografia soziodemografikoa egitea izan da. Egin zen diagnostikoaren arabera, Hernaniko biztanleen zahartze-tasa oso altua da (zehazki, % 24,4). Udalerriko biztanle asko bakarrik bizi dira (gehienak, emakumeak dira), eta egun arte eskaini diren zerbitzuek ezin diete erantzun zainketa intentsiboko premia guztiei, beraz, askotan etxeko langileak kontratatu behar izaten dira.

Zainketa-lanak demokratizatzeko ekintza-plana egin aurretik, Hernaniko Udalak Akonpainamendurako Programa Publiko-Komunitarioa abian jarri nahi du, adineko pertsonen bereziki zuzenduta. Horretarako, subjektu bat sortu nahi du, zainketen demokratizazioari buruzko hausnarketa eta eztabaida egiteko eta estrategia definitzeko. Zaintzen Plataforma Herritarra arduratzen da zainketak unibertsalizatzeaz eta demokratizatzeaz, udalerriko biztanleen premiak, baliabideak eta gabetasunak kontuan hartuta. Horri dagokionez, Akonpainamendurako Sare Publiko-Komunitarioa prozesu zabalago batean sartu da, eta helburua Hernaniko Zaintzen Tokiko Ekosistema eraikitzea da; aurrekariak duela bost urtekoak dira. Ildo horretatik, zerbitzua beste maila bat izan daiteke, mugarik gabeko kate batean.

Zaintza HerriLab Hernani proiektuan bi helburu ezarri dituzte. Lehenik eta behin, gizarte-isolamenduari lotutako egoera babesgabeak edo arriskutsuak prebenitzea. Zehatzago esanda, bakarrik bizi diren adinekoen gaineko gizarte-ardura aktibatu nahi da, haien sentsibilizazioaren eta ahalduentzearen bidez, informazioa biltzeko eta udaleko gizarte-zerbitzuen eskura jartzeko. Hala, herriko egitura formalen eta informalen arteko lankidetzaz baliatuta, adinekoen gizarte-isolamenduari lotutako babesik gabeko eta arriskuko egoerak prebenitu ahal dira. Bigarren helburua akonpainamendurako sare publiko-komunitarioa eraikitzea da. Horrek komunitatearen zaintze-kulturaren oinarriak ezartzen ditu.

2 Zaintza HerriLab Hernani. <https://www.zaintzaherriLab.eus/eu/w/hernani-herriLab>

Helburu horietatik eratortzen diren jarduerak, besteak beste, honako hauek dira: diagnostiko-metodologiak ezartzea, gizarte- eta hezkuntza-arloko eta komunitate-arloko laguntza-zereginak antolatzea, gizarteratzea eta laneratzea –politika publikoen eta garapen sozioekonomikoaren erdigunean mendekotasuna eta zaintza jarrita–, zaintza-lana egiten duten langileen balioa aitortzea –haien lan-egoera erregulatuz, balioa aitortuz eta duintasuna emanez–, eta informazio-sistema digital bat sortzea, zaintzari eta mendekotasunari buruzko gizarte-zerbitzuen norabidea eta politikak bideratzeko. Sistema horrek unibertsaltasunaren oinarri gisa funtzionatzen du, eta kontuan hartzen du udalerriko komunitate osoa. Gainera, etengabe eguneratzen da: datu berriak ezarrita, ebaluazioak eguneratuta, alarma-sistemak ezarrita...

Planaren faseak –2021etik, sare publiko-komunitarioaren diseinu bateratua egiten hasi zenetik, 2025a arte, hau da, sare osoa zabaltzeko arte– egikaritzeko, hainbat lantalde osatu dira gobernuan eta udal-administrazioan, baita eragile publikoen eta beste eragile komunitario batzuen artean ere. Batetik, Talde Eragileak zeharka koordinatzen ditu udal-arlo batzuetako jarduerak: Berdintasuna eta Kulturartekotasuna, Tokiko garapenerako sailak, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloa eta Kultura eta Euskara. Bestetik, Kontraste Taldea deritzonean, udal-arlo batzuek parte hartzeaz gain, gizarte-zerbitzuak eta teknologia-zerbitzuak ematen dituen Gislari enpresak eta Maitelan enpresa kooperatibo eta aholkulariak ere parte hartzen dute.

Hurrengo egikaritze-faseetan Agintzari eta Zabalduz kooperatibek ere parte hartuko dute. Enpresa horiek guztiak gizarte-ekimeneko kooperatiboak dira. Haien balioak, besteak beste, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, justizia soziala eta beste osagai etiko batzuk dira, hala nola konpromisoa, elkartasuna eta aniztasunarekiko errespetua; eta Gipuzkoako udalerrien eta Aldundiaren aliatu-sare gisa jarduten dute³. Maitelan kooperatibak⁴, adibidez, Hernaniko udalerriaren proiektuan parte hartzen du, eta emakume talde baten ekimenetik abiatu zen. Emakumeen talde horrek kooperatiba antolatzea erabaki zuen zaintzaren sektoreko lan-baldintzak hobetzeko. Helburua tresna bat eraikitzea izan da zaintzen erantzukizun soziala kolektiboki hartzeko. Erakunde berean antolatu nahi ditu langileak (zaintzaileak, gehienbat, emakumeak), erabiltzaileak (zainduak) eta laguntzaileak, guztiek gizarte-ekimeneko kooperatiban parte har dezaten. Kooperatibak zaintzeari lotutako zerbitzu mota guztiak ematen ditu: mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako gizarte- eta osasun-arreta, etxeko laguntza, aisialdiko eta

3 Gipuzkoako Aldundia Zaintza HerriLab Estrategia. <https://www.zaintzaherriLab.eus/es>.

4 Maitelan gizarte-ekimeneko kooperatiba integrala <https://maitelan.eus/es>

denbora libreko jarduerak (gizarte-laguntza, haurrentzako jarduerak, ospitaleko laguntza, etab.).

Bartzelonako “Superetxadiak” (superilles)

Bartzelonako *superilleak* proiektua hirigintza- diseinuari buruzko plana da, eta, labur esanda, hiri handiko hirigunea automobil pribatuaren erabileratik erreskatatzea du helburu, batez ere, erabilera sozialari lehentasuna emateko. Proiektu horren helburua, batetik, hirian bizi diren pertsonen bizitzarako eta ongizaterako espazio



egokiak sortzea da; eta, bestetik, elkarreragin komunitarioa berreskuratzea, orain arte mugikortasun motorizatua lehenetsi delako, eta, hartara, bigarren mailan egon delako. Hori dela eta, plan hori hiri-mugikortasuna berritzeko eta hirigintza jasangarria sustatzeko planetan sartu da. Adibide argia da, halaber, erakusten baitu hiriko diseinu espazialaren aldaketek espazio horren funtzioak eraldatzea eragiten dutela (Martín Carreño, 2020).


*Superille*etan egin den esperimentazioan hainbat bizipen eta hirigintza-proposamen gauzatu dira, besteak beste, Carlos Moreno arkitekto, hirigile eta hirietako adituarenak (Moreno *et al.*, 2021). Morenok “15 minutuko hiri”aren alde egiten du. Horren bidez, aurre egin nahi diote klima-aldaketari, hiri-eredu jasangarri baten bidez. Eredu horretan lehentasuna ematen zaio auzo-bizitzari; eta herritarren premia-asetzea eta zerbitzuak ematea hurbiltasunean gauzatzen dira. Horrez gain, Salvador Rueda (2017) ekologoaren proiektuak ere bildu dira. Bertan, antzeko ildo humanistan, iradoki da auzoak “superetxadietan” taldekatzea. Superetxadiak zelula handiak dira, bertan trafikotarduna ahalik eta txikiena da, eta gune publikoak handiagoak dira. Hiri-ereduaren diseinua pertsonentzat pentsatu da; eta ekologikoagoa, sozialagoa, irekiagoa, interkonektatuagoa eta jasangarriagoa da. Natura arautzen duen antzeko oreka ekosistemikoan oinarritzen da.

Proposamen horien ondorioz, “superetxadiak” gauzatu dira, eta, lehenik eta behin, Bartzelona elkarren ondoko etxadietan zatitzea eragin du (gutxienez, lau etxadi egin dira). Motordun trafikokoaren fluxua zoko horren kanpoko perimetrorantz bideratu da, eta barneko trafikoa mugatu da –egoiliarrek, banatzaileek eta premiazko gaiek soilik dute trafiko-baimena, abiadura-muga handiak ezarrita–. Lehentasuna oinezkoiei eta txirrindulariei ematen zaie beti, eta, oro har, espazioaren erabilera publikoari.




Poblenou herriko superetxadia 2016an abiarazi zen, eta esperientziaren lehen laborategi pilotua bilakatu da, baina, gero, beste esparru batzuetara hedatu da. Harrezkero, superetxadi horretan gertatu diren aldaketen analisiaren emaitzak onak izan dira. Auto kopurua murrizteari esker, eremu hori auzo-espazio bihurtu da, eta kalea leku atsegina eta gizarte-topaketarako leku segurua da adin guztietako kolektibo, erakunde eta pertsonentzat, besteak beste, neska-mutilentzat, adinekoentzat, emakumeentzat, zaintzaileentzat eta eskoletako erabiltzaileentzat. Hainbat faktorek erakusten dute eremua jasangarria dela, tartean, honako hauek: airearen kalitatea hobetu da (Blasco Vidal, 2021), kutsadura akustikoaren


bolumena murriztu da, kaleko saltoki txikiak berriro ezarri dira, eta, horrekin batera, eremu horretako ekonomia ere berriro piztu da. Horren harira, natura-ingurunea eskala txikian neurtzeko tresnen eta metodoen garapenari esker, airearen, uraren, beroaren edota argiaren hiri-fenomenoak kalkulatu ahal izan dira superetxadien oinezkoen eremuen eskalan. Horrez gain, hirien ezaugarri ekologikoen dimentsioak erlazionatu ahal izan dira (Speranza, Keisler eta Vincent May, 2015; Speranza, 2016). Oro har, inkesten bidez bildutako datuek erakusten dute superetxadien erabiltzaileek eta egoiliarrek ondo irizten dietela berritutako espazio publikoaren erabilerei, baina ibilgailu pribatuak bidaiaitzeko eragozpena ere adierazi dute (Ribera Llimos, 2018).

Eremu “baketu”en ezarpenak aukera eman du espazioaren erabilera mugikortasun motorizatuko ez bestelako irizpideen arabera kudeatzeko, eta eguneroko bizitzako beharrei lehentasuna emateko, besteak beste, ardatz berde berriak sortu ahal izan dira, kaleen arteko elkarguneak plaza gisa gorde ahal izan dira, piknik guneak



egokitu dira aire zabalean jateko, eta hiri-altzariak jarri dira, pertsonen atsedena eta haien arteko interakzioa sustatzeko (solasaldiak izateko, haurren jolaserako eta abarretarako). Eta hori guztia etxebizitzetatik hurbil dago. Bestalde, hiri-espazioaren erabilerak kudeatzeko eredu berri horrekin batera, superetxadietako herritar antolatuen partaidetza-prozesuak ere osatu dira. Prozesu horietan auzo-elkarteek, gizarte-etxeek, liburutegiek, klubek, eskolek eta abarrek parte hartzen dute, eta, beren proposamenak eta beharrak jakinarazteaz gain, haien garapena ere sustatzen dute, eta aisialdiko jarduerak, haur-parkeak, herriko kultura-ekitaldiak, kirol-lehiaketak, joko-pistak edo merkatuak antolatzen dituzte, beste batzuen artean. Hirigintza-eredu horrek, beraz, laguntzen du XX. mendean hiri handietan degradatuta geratu ziren loturak eta ekimen komunitarioak berreraikitzen. Horrez gain, azpimarratu egiten da eguneroko ekintza txikiek elkarrekiko hiri-zaintzan duten garrantzia (Hall eta Smith, 2015).





2. Zaintzak zer diren eta nola antolatu

2.1. Kontzeptualizazioa, abiapuntutzat hartuta

Zainketen hirira abiatzeko trantsizioa gauzatuko bada, zaintzak zer diren kontzeptualizatzeko lana egin behar da aldez aurretik, gero kontzeptu hori udaleko politika publikoen diseinuan modu eraginkorrean aplikatu ahal izateko. Kontzeptualizazio horrek, batetik, aukera emango digu zaintza-lanaren dimentsioak identifikatzeko. Bestetik, boterearen ardatzak berrikusiko ditugu, eta tartean dauden pribilegioak eta opresioa ere bai. Ariketa biek agerian utziko dituzte zaintzen osagai politikoa eta erakunde publikoen erronka, herritarren zaintza bermatzeko.

Azken urteotan teoria feministek ikuspegi integrala eta exhaustiboa azaldu dute zainketei buruz, beraz, ikuspegi hori abiapuntutzat hartuko dugu. Zeri esaten zaio zaintza, feminismoaren ikuspegitik? Zaintza kontzeptu polisemikoa eta poliedrikoa da, hots, hainbat esanahi eta hainbat dimentsio ditu. Feminismoen ikuspegitik, hainbat definizio baliatu dira, fenomenoari heldu dion korrante bakoitzak definizio bat proposatu duelako.

Honako testu honetan Dolores Comas-d'Argemir antropologoaren planteamenduan oinarritu gara. Berak honela definitu du zaintza:

“Zaintza pertsonen bizitza, osasuna eta ongizatea kudeatzean eta mantentzean datza. Ezinbestekoa da bizirik izateko, bizitza jasangarria izateko eta gizartea birsortzeko, beraz, ikuspegi horretatik, ezin da lan marjinaltzat hartu. Pertsona guztiok zaintzak behar ditugu gure bizitzan, beraz, zainketek dimentsio soziala ere badute, norberaren bizitzarako eta gizartearen biziraupenerako ezinbestekoak baitira”, (Comas-D’Argemir, 2017b: 61).


Comas-d’Argemir adituak osatu duen definizioaren arabera, pertsona guztiok zainketak behar ditugu, salbuespenik gabe, eta, gainera, bizitza osoan zehar, nahiz eta bizitzaren aldi batzuetan premia horiek handiagoak izan (adibidez, haurtzaroan eta zahartzaroan). Zainketak ezinbestekoak dira pertsonen bizitzan, beraz, feminismoen ikuspegitik aldarrikatu da bizitzaren jasangarritasuna gizartearen (politika publikoen) erdigunean jarri behar dela. Onartu egin behar da pertsona guztiak zaurgarriak direla, pertsonen berezko ezaugarria delako, pertsonaren egoera edozein izanda ere. Gainera, giza harremanak elkarrekiko mendekotasunean oinarritzen dira,

baita ekomendekotasunean ere (Herrero, 2014), beraz, pertsona guztiei zainketak bermatzea lehen mailako gai sozial eta politikotzat hartu beharko litzateke.

Cristina Carrasco ekonomialari feministak adierazi du zaintzan bi kontingentzia mota gertatzen direla. Batetik, dimentsio objektiboko giza premiei erantzun behar zaie. Premia horiek betekizun biologikoen eta fisiologikoen arabera dira (garbitzea, elikatzea eta abar).

Bestetik, zaintzan premia subjektiboak ere sartzen dira, besteak beste, afektibitatea, segurtasun psikologikoa eta giza erlazioen eta loturen sorrera (Carrasco, 2001).

Zainketa aztertzen denean, gutxienez, hiru dimentsio identifikatu ahal ditugu analitikoki, baina, eguneroko bizitzan batera gertatzen dira beti: dimentsio material-fisikoak; dimentsio subjektibo-erlazionala eta dimentsio ekonomiko, sozial eta politikoa.



Iturria: geuk egina.

Dimentsio material-fisikoak: zaintza, lantzat hartuta

Zaintzaren dimentsio material-fisikoari erreparatzen badiogu, lan gisa definitu beharko dugu. Izan ere, lan horretako langileen denbora eta energia kontsumitzen dira (Himmelweit, 2011). Ildo horretatik, zaintzaren dimentsio materialak biltzen ditu pertsonen behar fisikoak edo fisiologikoak betetzeko gauzatu behar diren jarduera guztiak –elikatzea, janzea, garbitzea eta abar–, baina baita jarduera horiek egin aurretik burutu behar diren zeregin guztiak ere (janaria, arropa eta garbiketa prestatzea, etab.). Horrenbestez, zaintzaren dimentsio materiala aipatzeak berekin ekartzen du etxeko lana ere aipatzea. Garrantzitsua da etxeko lana eta zaintza-lana bereiztea, baina aintzat hartu behar da etxeko lana aurrez egitea ezinbestekoa dela pertsonak zaindu ahal izateko. Hala, egile batzuek adierazi dute etxeko lana “zainketaren aurreko baldintza” edo “zeharkako zainketa” dela (Razavi, 2007). Era

berean, adierazi egin dute, lan bereziak direla: batetik, etxeko lana eta adinekoak zaintzea; eta, bestetik, haurrak zaintzea (Torns, 2008).

Bizitzari eusteko behar diren lan horien baldintzak ez dira berdinak gizarte-testuinguru guztietan, eta ez dute eragiten lan-karga, energia edo denbora bera ere. Munduko hainbat lekutan, eta, bereziki, munduaren hegoaldean, karga hori nabarmen igo da, beste gizarte batzuenarekin erkatuta (adibidez, janaria prestatu edo arropa garbitu aurretik, ur bila joan behar izaten dutelako). Lan horiei “bizirauteko” lanak esan zaie, beraz, ezinbestekoak dira bizirik irauteko, hain zuzen ere; eta zainketaren zati dira. Horri dagokionez, hainbat feministak zentzuz adierazi dute etxeko lana eta zainketa bereiztea “lehen munduko isuria” erakusten duela (Esquivel, 2011). Eta, horrela bada, zergatik bereizten dugu? Bereizten ditugunean, zaintzaren hirugarren dimentsioa agertzen da, dimentsio politikoa, hau da, botere-harremanen eta pribilegioen dimentsioa. Gai hori errazago ulertzen da, etxeko lanen eta zaintza-lanen banaketari buruzko bi galdera egiten baditugu. Lehenengo galdera etxeko lana gizonen eta emakumeen artean banatzeko moduari buruzkoa da; eta, bigarrena, emakumeen kolektiboen artean banatzeari buruzkoa.

Hona hemen lehenengo galdera: Nola hasi dira gizonak zainketa-lana egiten? Zer zainketa-lan egiten dute? Galdera horrek generoaren ondoriozko botere-harremanak azaleratzen ditu. Harreman horiek zainketa-lana banatzean osatzen dira, batez ere, bikote heterosexualetan. Bikote heterosexualek etxeko lanen eta zaintza-lanen banaketari buruzko ikerlariak ondorioztatu dutenez, gizonak, batez ere, zaintza-lan ludikoagoetan eta komunikatiboagoetan inplikatzeko dira (Barbeta-Viñas eta Cano, 2017). Adibide moduan aipa daiteke azterlan horietan elkarriketatuta diren emakume batzuek adierazi dutela bikotekideek denbora gehiago ematen dutela seme-alabekin, haiek baino denbora gehiagoz jolasten direlako (Legarreta, Sagastizabal eta Agirre-Miguel, 2019). Gainera, gizarteak inplikazio hori bereziki txalotzen du. Aitzitik, zaintza-lan neketsuenak, gutxien ikusten direnak eta egiten dituen pertsonarentzat gogobetegarriak ez direnak emakumeei esleitzen zaizkie oraindik ere (hala nola garbitzea, elikagaiak prestatzea, etxeko eguneroko mantentze-lanak, etab.).

Hona hemen bigarren galdera: Etxeko lana eta zainketa-lana azpikontratatzeko direnean, zer zati kanporatzen da? Bestela esanda, beste pertsona bati zainketa-lana egitearen truke ordaintzen diogunean, zer lan agintzen diogu? Galdera horrek erreferentzia egiten die klase sozial desberdinetako emakumeen arteko botere-harremanei,

bai eta iparraldeko eta hegoaldeko emakumeen edota emakume arrazializatuen artean ezartzen direnei ere. Argi dago soldatapeko langileari errutinazko zereginak, neketsuenak eta gogobetetasun txikienekoak agintzen zaizkiola. Horiek horrela, zeregin horiek kanporatzeak aukera ematen die munduaren iparraldeko emakume zuri askori, soldatapeko merkatuan lan egiteko.



Dimentsio subjektiboa eta erlazionala: zaintza, etika gisa

Zaintzeak berekin ekartzen du beste pertsona horren premiei adi egotea, hau da, zaintzaileak laguntzeko prest egon behar du. Joera horrek erantzukizuna, emozioak eta loturak ekartzen ditu berekin (Comas-d'Argemir, 2017b). Gainera, zaintzea zeregin zehatz batzuk egitea baino gehiago da. Jarduera horretan giza dimentsioa dago, eta makina batek ezin du dimentsio hori bete. Horrenbestez, zer egin hori oso lotuta dago pertsona bien artean sortzen den harremanari; beraz, zaintza-jarduerak nahitaez erlazionalak dira. Hala, zeregin horiek beraiekin ekartzen dute adi egotea, osotasunez erantzutea eta begirunez jokatzeta (Gilligan, 2013). Horri buruz, Teresa Torns soziologoak (2008) “kudeaketa familiarra” aipatzen du. Termino horretan sartzen ditu planifikatzea, kudeatzea edota aurreratzea eskatzen duten jarduera guztiak... Pandemiaren ondoriozko egoeran argi ikusi




zen zaintzaren dimentsio subjektibo-erlazionala zein garrantzitsua den (Comas-d'Argemir eta Bofill-Poch, 2021). Dimentsio hori pertsonen arteko harreman fisikoari lotuta dago, eta, falta denean, pertsonen narriadura fisikoa, emozionala edota mentala izan dezakete. Dimentsio subjektibo-erlazional horren garrantzia agerian utzi dute COVID-19ren ondoriozko isolamendu-egoeran eta distantzia fisikoko egoeran lan egin behar izan duten adinekoen egoitzetako langileen eta ikastetxeetako irakasleen kontakizunek.

Azkenik, zainketen dimentsio morala ere badute, eta beste pertsona batzuk zaintzeko betebeharrari lotuta dago (Comas-d'Argemir, 2017b; Legarreta, 2017). Emakumeek, genero-sozializazioaren ondorioz, gizonek baino gehiago barneratu dute beste pertsona batzuk zaintzeko betebeharra. Araugintza-ideia horrek erruduntasun-sentimenduak sortzen ditu askotan, emakumeek askotan pentsatzen baitute modu okerrean edo behar baino gutxiago zaintzen ari direla.

Zaintzaren dimentsio ekonomiko, sozial eta politikoa

Zaintza ezinbestekoa da bizitzaren jasagarritasuna bermatzeko; hala eta guztiz ere, gizartean ez zaio baliorik edo garrantzirik ematen, ez soziala, ezta politikoa edo ekonomikoa ere. Gainera, esan bezala, botere-harremanek zeharkatzen dute zaintzaren arloa. Maitasuna eta zainketak ez daude loturik ezinbestean. Illo horretatik, zaintzak zainduaren aurkako tratatu txarrak edo tratatu okerrak ekar ditzake, baina, era berean, zerbitzua ematen duenaren gaineko esplotazio-harremanak ere bai. Gizartean garrantzirik edo baliorik ematen ez zaionez, baxuak izan ohi dira zaintza-lanaren ordainsariak. Askotan, hogeita lau orduko lana da, astean zazpi egunekoa eta atsedeen gabea. Modu intentsiboan zaintzeak esan nahi du ez dagoela denbora propioa kudeatzeko aukerarik, ezta aisialdiaz gozatzeko aukerarik ere. Horrenbestez, zaintza-lanean jarduteak berekin ekartzen du botere eta pribilegioen galera. Langile horiei dagokienez, María Ángeles Durán soziologoak aipatzen du klase sozial berria sortzen ari dela, eta “zaintzaritza” (“*cuidatoriado*”, gaztelaniaz) deitu dio (Durán, 2018).



Argudio-ildo horretatik, gure gizartean eta gure kulturen zaintzaren arloa aztertuko badugu, desberdintasuna eragiten duten hainbat ardatz nagusiri erreparatu beharko diogu, ikuspegi intersektzionaletik.

Desberdintasunaren lehen ardatza: generoa

Denbora Aurrekontuen Inkestaren arabera, emakumeek etxeko lanen eta zaintza-lanen % 70 egiten dute (Eustat, 2020d). Zaintza-lana feminitateari lotu ohi zaio, kulturalki; gizonek, ordea, maskulinitatea eraikitzen dute zaintza-lanetatik urrunduz, eta, bereziki, neketsuagoak eta errepikakorragoak diren lanetik aldentuz (Coltrane, 2000). Horrenbestez, lehenago adierazi dugun bezala, zaintzaren dimentsio materiala eta zaintzaren dimentsio subjektibotiboz erlazionala bereizi behar dira: denbora aurrekontuen inkestek erakutsi dute etxeko lanen “nukleo gogorra” emakumeen esku egon dela, eta badagoela oraindik ere, gizonek azken urteotan gehiago inplikatu diren arren (Sagastizabal eta Luxán, 2015; Legarreta, 2021).

Gaur egun, zaintzaile gehienak emakumeak dira, zainketa-eremua eta mendekotasun-egoeran dagoen pertsonarekiko harremana edozein dela ere. Emakumeei zaintza-lana esleitzen zaie, emakume gisa sozializatu direlako, baina, horrez gain, beste faktore batzuek ere baldintzatzen dute, adibidez, gizarte-klaseak. Hala eta guztiz ere, denboraren erabilerari buruzko zenbait ikerketak erakutsi dutenez, generoa hierarkizazio sozialeko beste irizpide batzuk –hala nola, jatorri etnikoa eta estratifikazio sozioekonomikoa– baino faktore erabakigarriagoa da denboraren erabilera desberdina azaltzeko (Callejo eta Prieto, 2015).

Desberdintasunaren bigarren ardatza: klase soziala

Egoera sozioekonomikoak eragina izaten du familiek kudeatzen dituzten zaintza-baliabideen osaera berezian. Klase sozialak eta gaitasun ekonomikoak baldintzatzen dute zaintzaren baliabideak eskuratzea, baita lehentasunak eta estrategiak ere; beraz, klase herrikoietan, batez ere, familiak dira, eta nagusiki, emakumeak, iraupen luzeko zaintzak beren gain hartzen dituztenak; aitzitik, erosteko ahalmen handieneko klaseen artean kanporatzeko joera dago (Cano, 2018). Horiek horrela, familiako zaintzaile gehienak emakume langabeak, erretiratuak eta etxekoandreak dira, eta egunean 4-5 ordu ematen dituzte zaintza-lanetan (Durán, 2018).

Aldi berean, iraupen luzeko zainketen sektoreko soldatapeko langileen artean askotariko lan-ibilbideak eta klase sozialak identifika daitezke (Recio et al, 2015). Hiru profil bereizi ahal dira: emakume migratzaileak, zaintzaile informal gisa; bertako emakume langileak, etxez etxeko laguntza-zerbitzuetako langileak; eta bertako emakume gazteak, gizarte-langile gisa. Oro har, mendekotasunaren arretarako zerbitzuetako langileen lan-baldintzen ezaugarri nagusiak aldi baterakotasuna, lanaldi partzialak eta ezohiko kontratu kopuru handiak dira (CES, 2020).

Bestalde, haur-hezkuntza garatu den lan ordainduaren sektorea ere, bereziki, 0-3 urte bitarteko etapakoa, asistentziari eta zaintzari lotuta dago, eta hezkuntza-erreformetan hala jaso da (Arrillaga, 2008). Arrillaga adituak adierazi duen bezala, haurren zaintza emakumeen enplegu-nitxoa izan ohi da laneratzeko aukera gutxi zuten emakumeentzat, lan hori ez baita profesionalizat hartzen. Informala eta asistentziala izanik, haurtzaroko zainketen sektorea feminizatu eta prekarizatu da.

Desberdintasunaren hirugarren ardatza: arraza/etnia eta migratzaile izatea

Desberdintasunaren dimentsio hori erakusten da, funtsean, etxeko lanak eta zaintza-lanak kanporatzen direnean. Munduaren iparraldeko gizarte jakin batzuetan zaintza modu masiboan kanpora daiteke, eta lan hori modu prekarioan eta, batzuetan, abusuzko baldintzetan egiten da. Batetik, zaila da erregulatzea etxe barruan zer gertatzen den. Bestetik, zaintza ordainduak ematen dituzten emakume asko irregulartasun-egoera administratiboan eta juridikoan daude harrera-herrialdeetan. Beraz, etxeko emakumezko langileek askotariko diskriminazioak jasaten dituzte, bertan hainbat desberdintasun-ardatz zeharkatzen direlako: generoa, klasea eta migratzaile izatea, besteak beste (Nogueira eta Zalakain, 2015).

Zaintza-lana eguneko hogeita lau orduz eta asteko zazpi egunez modu duinean egin nahi bada, bost zaintzaile kontratatu behar dira. Familiek ezin dute zerbitzu hori ordaindu. Horregatik, feminismoek aldarrikatzen dute zainketa-sistema duala, publikoa eta komunitarioa.

Gainera, zaintza-lanak kanpora ateratzea gai gatazkatsua da, emakume zurien pribilegioak eta errenta ertain edo altuak dituzten gizarte-kolektiboak agerian uzten dituelako. Munduaren iparraldeko emakume askok beste emakume batzuei esker egin ahal izan dute aurrera beren karrera profesionalean edo amatasun intentsiboan. Emakume migratu eta arrazializatu asko, mendeko langile gisa, zaintza-zerbitzuak ematera behartuta daude (Precarias a la Deriva, 2003).


Desberdintasunaren laugarren ardatza: adina

Adinaren dimentsioa bi norabidetan azaltzen da. Alde batetik, etxeko lanak eta zaintza-lanak ez dira berdin banatzen belaunaldien artean: helduek eta adinekoek gazteek baino askoz denbora gehiago ematen dute zeregin horietan (Legarreta eta Sagastizabal, 2020). Beste alde batetik, adinari lotutako adin-talde jakin batzuen gizarte-marjinazioak edo desbalarizazioak zeharkatu egiten du egungo gizarte-eredua, zeinak ezaugarri nagusitatz hartzen baititu gaztetasunari eta berrikuntzari lotutako estereotipo nagusiak. Adinaren dimentsioak barne hartzen ditu egoera zaurgarrienetako batzuetan bizi diren gizarte-kolektibo batzuk, zaintzak behar dituztenak. Lehenak, adineko pertsonak dira; eta, bigarrenak, haurrak eta umeak. Lehenago adierazi bezala, talde horiei gehien eragin diete pandemiaren garaiko neurri batzuek.

Adinaren inguruko desberdintasunak oso lotuta daude gure mendebaldeko gizarte garaikideetan orokortu den bizi-zikloa ulertzeko moduarekin. Zehatzago esanda, “adin-aro guztiak hiru etapatan normalizatu, espezializatu eta etengabe kateatu” dira: hezkuntzako fasea, produkzio-fasea eta erretiratze-fasea (Alonso, 2004:26).

Horiek horrela, gaztearen bizi-zikloa hezkuntzari dagokio; heldutasuna, produkzioari; eta, azkenik, zahartzea, erretiroari. Hala eta guztiz ere, eredu horrek ez du kontuan hartzen etxeko lanetan eta zaintzan eman behar den denbora, ezta bizi-garapenean erritmo biologikoek duten garrantzia ere (adibidez, emakumeen ugalketa-adina). Aldi berean, emakumeek lan-merkatuan izaten dituzten baldintzak alde batera uzten ditu. Emakumeen lan-bizipenetan jarraitutasuna eta egonkortasuna ez dira nagusi, baizik eta ezegonkortasuna eta etena (sartzea eta irtetea), aldizkakotasuna, aldiberekotasuna eta lan-denboren eta beste denbora batzuen arteko ezinbesteko antolakuntza (batez ere, zaintza-lanekin bateratu behar dituztelako) (Cordoni, 1993).

Orain arte aipatutako desberdintasun-ardatzek erakusten dute garrantzitsua dela zaintzaren dimentsio ekonomiko, sozial eta politikoa kontuan hartzea, hainbat arrazoiengatik. Lehenik eta behin, zainketen sistema tradizionala jasanezina delako. Bigarrenik, pertsonen eta kolektibo sozialen arteko desberdintasuna sortzen duelako, eta herritartasun sozialaren oinarriak higatzen dituelako. Horren aurrean, udal-gobernuek trantsizio-politikak diseinatzeko hasi behar dute epe labur eta ertainera, zaintza-jarduerak ikuspegi integral eta jasangarri batetik berrantolatzeke. Gaur egun, zaintza gai politikoa da, beraz, ez da nork bere kabuz konpondu behar duen zerbait.



2.2. Zainketak eta zainketen antolaketa

Aurreko ataletan jada adierazi bezala, zaintzak emateko sistema oso zabala da, barne hartzen baititu eremu publikoa, pribatua eta komunitarioa, baita ordaindutako eta ordaindu gabeko zaintza ere. Hori dela eta, zaintza ematea zer den zehaztu behar denean, “*social care*” nozioan bildutako proposamena erreferentziatzen hartzen dugu (“zaintzaren gizarte-antolaketa” esan ohi zaio, euskararako itzulpenetan). Nozio hori Mary Daly eta Jane Lewis adituek landu dute (2000).


Zaintzaren gizarte-antolaketak (“*social care*”) erreferentzia egiten die helduen (bereziki, adinekoen eta mendeakoen) eta haurren eskaera fisikoak eta emozionalak asetzeko egin behar diren jardura guztiei, baita lan hau esleitu eta gauzatzen den normatibitateari, kostuei eta gizarte-testuinguruei ere. Horrenbestez, planteamendu horrek hautsi egiten du zaintza etxeko eremuarekin eta eremu pribatuekin lotzeko joera, eta, horren ordez, mikro eta marko mailetatik heltzeko hurbilketa bikoitza proposatzen du.

Ikuspegi horren makro mailak lanaren banaketa azpimarratzen du, hau da, zaintzaren erantzukizuna eta kostuak familiaren, merkatuaren, estatuaren eta komunitatearen artean banatzeko modua. Mikro mailak, berriz, argitzen ditu etxeko lanaren edukia eta testuingurua, batez ere, emakumeek egiten dutena, baita gizonen eta emakumeen artean zaintza-lana nola banatzen den eta nola gauzatzen den ere. Ikuspegi bikoitz hori abiapuntutzat hartuta, eta betiere *social care* nozioaren ikuspegitik, zaintzak emateko proposamenaren arabera, honako hauen arteko elkargunean daude zaintza-lanak: alderdi publikoaren eta pribatuaren artean (bai estatuaren/familiaren harira, bai estatuaren/merkatuaren prestazioen harira); eremu formalaren eta informalaren artean; ordaindutakoaren eta ordaindu gabekoaren artean; eta prestazio mota batzuen artean (prestazio ordainduak eta zerbitzuak kontuan hartuta).


Azkenik, gure ustez, *social care* kontzeptuan modu egokian bildu da testu honetan azaldu dugun ikuspegi kontzeptuala, lagungarria baita zaintzaren inguruko kontzeptualizazioa eta eztabaida zabaltzeko: etxeetan egiten den lanetik haratago hedatzen duelako, eta eremu pribatuan zein publikoan ezartzen duelako. *Social care* ikuspegia lagungarria da zainketen gaia agenda sozialean eta politikoa eta, beraz, udal-politika publikoetan beste era batean antolatzeko eta jorratzeko. Zainketetan inplikaturako eragileen aniztasuna ulertzeko modu berria “zaintzaren diamantea” izenekoa irudikatu da (Razavi, 2007). Horren arabera, familia, estatua, merkaturia eta irabazi-asmorik gabeko sektorea dira zaintza ematearen erantzuleak.

Irudikapen horren bitartez, zaintza-
ren gizarte-berrantolaketa berri bat
adierazten da, eta zaintza ematen
duten pertsonak eta eragile insti-
tuzionalek, araugintza-esparruek
eta erregulazioek, merkataritza-par-
taidetzak eta partaidetza komunita-
rioak osatzen dute (Pérez Orozco,
2006).


2. irudia. Zaintzaren diamantea



Iturria: geuk egina, Razaviren lanean
(2007) oinarrituta.







II. Zatia

3. Zainketen zeharkakotasuna, Berdintasun Arlotik

Udalaren Berdintasun Arloa, bai praktiketan, baita dokumentu pragmatikoetan ere, saiatu egiten da herritarrei fundamentuzko eta kalitatezko zaintza-zerbitzuak ematearen garrantzia eta ardura aldarrikatzen. *Berdintasun Planak* irakurrita, ikus daitekeenez, arloaren lehen urteetan, 1997tik 2011ra bitartean (aldi horretan lehenengo hiru berdintasun-planak egin ziren), zainketak aztertu dituzte kontziliazioaren eta gizonen eta emakumeen arteko erantzunkidetasunaren ikuspegitik. Horiek horrela, udalak pentsamoldea eta balioak aldatzera bideratutako sentsibilizazio-politikak sustatu ditu, gizartea antolatzeke eredu berri batean aurrera egiteko. 2014tik 2023ra arteko planetan, hau da, IV. eta V. planetan, jorratutako aldian, erantzunkidetasunarekin batera, zaintzen etikari buruzko kontzeptualizazioa ere sartu da.

Ibilbide horretan azpimarratzekoa da Bilboko Emakumeen Kontseiluak⁵ egin zuen *Zaintzaren Diagnostikoa* (2008an). Diagnostikoa egin zen zaintzea zer den, nork zaintzen duen eta nola zaindu behar den eztabaida eta hausnarketa zabaltzeko. Diagnostiko horren bidez, zaintzaileen eta zaintzak jasotzen dituztenen ekarpenak jaso nahi ziren, botere publikoen erabakiekin alderatzeko. Kontseiluak intereseko bi lerro azaldu zituen. Alde batetik, gabezia eta premia espezifikoak detektatzea zaintza-maila guztietan: adingabeak, mendekotasuna duten pertsonak, desgaitasuna duten pertsonak eta beste pertsona batzuk zaintzeko maila guztietan; eta, bestetik, ordaindutako eta ordaindu gabeko zaintzaile profesionalen lotutako alderdiak, eta lan hori egiteko onartzen diren prekarietate-baldintzak, bereziki, emakume etorkinen kolektiboan. Diagnostiko horren ondorioz, Kontseiluak 2009an egin eta onartu zuen *Zaintzen dekalogo*a.

5 Bilboko Emakumeen Kontseilua 2005ean sortu zen. Mugimendu feministek, emakumeen elkarteek eta beste emakume-talde batzuek parte hartzen dute tokiko administrazioarekin batera, eta, besteak beste, honako eginkizun hauek betetzen dituzte: Bilboko emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna eragozten duten oztopoak ezabatzeke jarduerak edo zerbitzu-politikei buruzko proposamenak bultzatzea, sustatzea eta horretan laguntzea.

Berdintasunerako Bilboko Emakumeen Kontseilua

Zaintzari buruzko dekalogo

1. **Genero-rolak haustea.** Diskriminatu egiten gaituzten eta zaintzaileen egitekoa geure gain uzten dituzten genero-rolak ez dira desagertu gure gizartean. Gizartea kontzientziatzeko lana egin behar da, bai desberdinasunei dagokienez zein desberdintasun horrek gure bizitzan duen eraginaren gainean.
2. **Zainketa, bakardadean.** Emakumeek bakardadean zaintzen jarraitzen dugu. Zainketak gizonen eta emakumeen artean partekatutako erantzukizuna izan behar dira, benetan berdintasunean oinarritutako gizartea lortu nahi badugu.
3. **Diskriminazio bikoitza.** Minusbaliotasuna dugun emakumeak zaintzaileak ere bagara, eta, kasu honetan, diskriminazio bikoitza jasaten dugu; emakume gisa eta minusbaliotasuna dugun pertsona gisa. Beraz, erakundeek laguntza berezia eskaini behar digute.
4. **Zaintzea guztion zeregina da.** Eredu berriak beharko genituzke: eredu horietan, gizonak zaintze lanetan izan beharreko inplikazioa berdintasunean oinarritutakoa izan beharko litzateke.
5. **Emakumeek zaintzaile gisa duten egitekoa ikusaraztea.** Emakumeek zaintzaile gisa egiten dugun lana ikusezina da oraindik, nahiz eta nahitaezkoa den gizartearentzat; hori dela eta, aintzatetsia eta baloratua izan behar da bere neurri guztian.
6. **Instituzioen eta gizartearen erantzukizuna.** Zaintze lanetan dihardugun emakumeek elkarte, gizarte-eragile eta instituzioen babesa eskatzen dugu, erantzukizunen banaketan inplikatu daitezen.
7. **Baliabideak ezagutu eta eskuratzeko eskubidea.** Laguntza behar duten pertsonak zaintzen ditugun emakumeek eskaera egiten dugu laguntza behar duten pertsona guztientzako baliabideak berma daitezen, bai eta baliabide horiei buruzko informazioa ere, laguntza behar duen pertsonaren eta zaintzailearen beharrezanetara egokituta.
8. **Zainduak izateko eskubidea.** Emakumeek ere eskubidea dugu zainduak izateko, eta gure lan bizitza eta bizitza pertsonala alde batera ez uzteko eskubidea, beste pertsona batzuk zaintzeagatik eskubide hori onartua izan gabe.
9. **Kalitatea zaintza lanetan.** Emakumeek zaintza lanak egiterakoan bizi ditugun baldintzak kalitatezkoak izan behar dira, eta zaintze lanek eragindako ondorio fisiko eta psikologikoak hartu behar dituzte kontuan.
10. **Lan-baldintza duinak izateko eskubidea.** Zaintzaileak kontratatzen dituzten enpresen aldetik ezin dugu gehiegikeria gehiago onartu, emakume etorkinak bereziki ahulak direlarik. Zaintzarekin erlazionatutako lana langileentzat eta zaintza jasotzen duen pertsonarentzat egokiak diren lan baldintzetan egin behar da.

Andrazkoen eta Gizonezkoen arteko berdintasunerako 2019ko urtarrilaren 3ko Ordenantzan onartutako edukiak Berdintasunaren V. Planean (2020-2023) bildu eta garatu dira. Hauxe da helburu nagusia, eta gai hori jada 2009ko dekalogoan jorratu zen: *“Erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika sustatzea, konpromiso politiko, ekonomiko eta sozializat hartuta, eta agertoki publiko eta pribatuetan, lan-merkatuan, familia-erantzukizunetan eta erabakiak hartzean gizonek eta emakumeek antzeko betebeharrak edukitzea bultzatzea”*. Xede hori lortzeko, zenbait neurri proposatu dira zaintza-lanetan eta etxeko lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko; bizitza pertsonala, lana eta familia uztartzen lagunduko duten zerbitzuak eta baliabideak –bereziki zainketei, mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiten diotenei buruzkoak– diseinatzeko eta ezartzeko; eta Bilboko enpresa-, ekonomia- eta sindikatu-sarean antolaketa-eraldaketa bultzatzeko, denboraren erabilerei eta gizarte-erantzunkidetasunari dagokienez.

Horrela, zainketak birbanatzea beharrezkotzat jotzen da, bai eremu pribatuan, emakumeen eta gizonen artean, bai publikoan. Horretarako, udalak konpromisoa hartzen du zainketen erantzunkidetasuna langileen barne-kudeaketan txertatzeko; eta, horrez gain, zerbitzu eta baliabide eskuragarriak, malguak, kalitatezkoak eta eskuragarriak sustatzen ditu, kontziliazioa errazteko, bereziki zainketei dagokienez. Era berean, zainketa-lanak egiten dituzten pertsonen laguntza ekonomiko, tekniko eta psikosoziala emateko neurriak eta zerbitzuak aurreikusten dira. Horrela, zainketak bizi-premiatzat hartzen dira, baita partekatu, gozatu eta gizarte eta pertsona gisa hobetzen gaituen ondasun komuntzat ere (ikus ordenantza horren 31. eta 32. artikulua).



Bilboko Udalaren Andrazkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunerako ordenantza

31. Artikulua. Kontzeptua

Ordenantza honi dagokionez, gizarte-erantzukidetasuna da konpromiso politiko, ekonomiko eta soziala, gizonek eta emakumeek, eskubide berdinak dituzten neurrian, an tzeko betebeharrak eta obligazioak ere izan ditzaten alor publikoan eta pribatuan, lan merkatuan, familia-arduretan eta erabakiak hartzean.

32. artikulua. Neurriak

Artikuluari aipatutako helburua lortzeko, honako neurri hauek garatuko dituzte, besteak beste, Bilboko Udalak eta haren mendeko gainerako erakundeek:

- a) Gizonen erantzukidetasuna sustatzea zaintza-lanetan eta etxeko zereginetan.
- b) Zerbitzu eta baliabide eskuragarriak, malguak, kalitatezkoak eta sarbide errazekoak diseinatu eta ezar daitezela sustatzea. Zerbitzu eta baliabide horiek bizitza pertsonala, lana eta familia bateragarri egiten lagunduko dute –bereziki, zaintzei, -mendekotasun-egoeran dauden arretari eta emakumeenganako indarkeria pairatzen dutenei dagokienez–.
- c) Bilboko enpresa-, ekonomia- eta sindikatu-alorreko antolakuntza eraldatzea bultzatzea, denboraren erabilerei eta gizarte-erantzukidetasunari dagokienez.
- d) Haurrei arreta eta laguntza emateko zerbitzuak diseinatu eta gara daitezela sustatzea, eskolaratu aurreko adinetan sortzen diren beharrezkoak aurre egiteko. Zerbitzu horiek ordutegi eta egutegi zabalak eta malguak eskaini beharko dituzte, eskumena duten gainerako administrazioekin bat.
- e) Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza zehar aurretiaz finkatutako eskola-ordutegi eta -egutegiaz kanpoko arreta osagarria egoteko beharrezko baliabideak sustatzea, emakumei eta gizonei errazteko beren bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egitea.
- f) Zaintza-lanak egiten dituzten pertsonen laguntza ekonomikoa, teknikoa eta psikosoziala emateko neurriak eta zerbitzuak diseinatu eta garatzea. Aldi berean, aitortzea zaintzak, bizitzeko beharrezkoak izateaz gain, partekatutako eta goza daitezkeen ondasun komuna ere badirela, eta gizartearen zein norbanakoak aberastu egiten dituztela.
- g) Emakumeek eta gizonek beren bizitza pertsonalean, familian eta lan-arloan erantzukidetasunez aritzeko zerbitzuak ematea helburu duten enpresak sortzeko eta babesteko erakundeak laguntza sustatzea.

Ordenantza hori garrantzitsua da udal-erakundeetan eta haren mendeko organoetan ez ezik, erakundearekin kontratuak edo lankidetzak-hitzarmenak egiten dituzten erakunde pribatuetan ere aplikagarria delako, eta laguntza edo dirulaguntza baten onuradunek ere bete behar dutelako. Hori ezartzeko, tokiko administrazioan lan egiten duten langileen inplikazioa behar bada ere, zeharkakotasuna Berdintasun Arlotik bultzatu behar da.

Zainketen antolaketa berria ezartzeko trantsizioak eskatzen du Berdintasun Arloak bere gain hartu behar duela prozesuaren lidergoa, eta horrek esan nahi du zainketen zeharkakotasun-politika bat diseinatu eta abian jarri behar duela. Zeregin horri ekiteko, Tokiko Administrazioako arloen arteko koordinazio-lana egin behar da, arlo bakoitzak bere esperientzia eta jardunbide egokiak aurkez ditzan, eta, bikoiztasunak edo gainjartzeak detektatzeaz gain, haien artean sor daitezkeen sinergiak ere baliatzeko.

Lehen fase batean, arlo edota zuzendaritzetatik jada garatzen ari diren zainketen arloko ekintzak eta programak identifikatu beharko dira, bai eta jasota ez daudenak edo oraindik ezarri ez direnak ere, nahiz eta planetan jasota egon. Ildo horretatik, arloen arteko desoreka identifikatu dugu. Izan ere, honako arlo hauek daude:

- Arlo batzuek ibilbide luzea egin dute gai horien lanketan, nahiz eta beste izen batez agertu. Arlo horiek eskumenak dituzte eta neurri zehatzak ezartzen dituzte zainketen esparruan.
- Beste arlo batzuek ia ez dute garatu eremu hori, nahiz eta programaren bat edo gaiari buruzko nolabaiteko sentsibilitatea izan edo jarduera-esparrua zabaltzeko aukera izan.
- Beste arlo batzuek zaintzaren gaineko ardura erakusten dute, nahiz eta pentsatu zaintza ez dela gai nagusirik haien eguneroko jardunean.

Konpromiso handiena erakutsi duten arloek zainketen arloan egin dituzten ekarpenak bildu eta baloratu beharko dira. Halaber, komeniko litzateke zehaztea zeintzuk gako-ekimenak izan daitezkeen, prozesuaren motor gisa. Horrela, modu koordinatuan, zaintzak beste modu batean antolatzeko trantsizioa gidatu ahal izango dute, eta betiere haien arteko sinergiak bilatu beharko dira. Segidan, abiarazi diren jarduketa batzuk aipatuko ditugu:

Gazteria eta Kirol Arloa

- Eguneko udalekuak (3-12 urte).
- Goizeko udalekuak (3-12 urte).
- Gabongune (3-8 urte).
- Gabonkide (9-11 urte).
- Guneberri eta Kideberri (5-11 urte).
- Haurgune (3-8 urte).
- Kidegune (9-11 urte).
- Gaztegunak (13 urtetik aurrera).
- ...


Osasun eta Kontsumo Arloa

- Osasuna sustatzea:
 - Gurasoekin eta Irakasleekin.
 - Haurrekin, Nerabeekin eta Gazteekin.
 - Adinekoekin.
- Parke bio-osasungarriak.
- Drogomendekotasunak eta beste mendekotasun batzuek prebenitzea.
- ...

Gizarte Ekintza Arloa

1. Autonomia sustatzea eta mendekotasun-egoeran daudenei laguntzea:
 - Etxean autonomo izatea.
 - Ostatu-aukerak ematea, etxean jarraitzea ezinezkoa denean.
2. Pertsonak eta familiak babestea:
 - Esku-hartzeak, pertsona helduekin.
 - Esku-hartzeak, adingabeekin eta haien familiarekin.
3. Gizarteratzea sustatzea eta baztertuei arreta ematea:
 - Gizartean baztertua egoteko arazoei aurrea hartzeko eta egoera horiek arintzeko laguntza ekonomikoak.
 - Behin-behineko ostatu emateko zerbitzuak.
 - Gizartean baztertuta dauden edo arriskuan dauden pertsonak goiz detektatzeko eta pertsona horiei laguntzeko esku hartzeak.
4. Parte-hartze soziala eta sustapen komunitarioa: helduei zuzendutako programak eta zerbitzuak.







Abiapuntu horretatik, bigarren fase horretan *zaintzen esparru kontzeptuala eraiki beharko litzateke*. Horretan, kontuan hartuko lirateke udaleko administrazio-egitura, arloen mendeko organoak eta batzordeak, eta, bereziki, zainketak beste ikuspegi batetik txertatu dituzten arloen lankidetzak, hala nola Osasun eta Kontsumo Arloarena, betiere Berdintasun Arloaren gidaritzapean. Berdintasun Arloak bere gain hartu beharko luke hori antolatzeke eta ezartzeko erantzukizuna.



Planteamendu hori gauzatzeko, pertsona inplikatuak, bai tokiko komunitate-sareko elkarteetakoek, bai toki-administraziokoek, zaintzak emateari buruzko *esperientziak partekatzen* hasi beharko dute; *horrela*, epe motz-ertainera zaintza-eredu demokratikoa lortzeko trantsizio-politiken diseinuari *ekin ahal izango diogu*.

Testuinguru horretan, halaber, partaidetzazko prestakuntza- eta hausnarketa-prozesu kolektiboa diseinatu behar da, oinarri teoriko partekatu batzuk ezartzeko eta, horrela, zainketen zeharkakotasun-lana errazago egiten hasteko. Prestakuntza-prozesu parte-hartzailean kolektibo batzuek ezinbestean parte hartu behar dute. Honako hauek dira:

- Berdintasun Arloko langileak.
- Jarraipen Batzorde Politikoa: alderdi politikoen taldeetako zinegotziak edota ordezkari korporatiboak, Bilboko Udala ere barne.
- Arloen arteko Batzordea: udalen mendeko arloetako edo erakundeetako teknikariak, hau da, politikak eta programak koordinatzeko arduradunak.
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko udal unitateak.
- Bilboko Emakumeen Kontseilua, non mugimendu feministek, emakume-elkarteek eta beste emakume-kolektibo batzuek parte hartzen duten.



4. Zainketen gaineko hausnarketa-prozesua

Segidan, Bilboko Udalaren Berdintasun Arloak eskatuta egin den prestakuntza- eta hausnarketa-prozesuaren xehetasun metodologikoak eta alderdi praktikoak zehaztu ditugu. Prozesu hori 2021ean eta 2022an egin diren bi prestakuntza-saiotan, hurrenez hurren, gauzatu da, bildutako informazioa ere aztertuta.

4.1. Ikerketa-Ekintza-Parte hartzailea

Prestakuntzaren diseinua egiteko, kontuan hartu da deskribatutako tokiko esparruaren testuingurua, eta Ikerketa-Ekintza-Parte hartzailea estrategia kualitatiboan sartu da. Estrategia horrek eguneroko eta berehalako arazoak konpontzen ditu, eta praktika zehatzak hobetzen ditu.

Gizarte-aldaketara bideratutako ikerketa-estrategia da, eta inplikaturako pertsonak erabakiak hartzean parte-hartze demokratikoa izatea eskatzen du. Bestela esanda, aztertutako pertsonen eta taldeen esku-hartzea sustatzen duen metodologia da, eta beren arazoak konpontzea bilatzen du, kontzientziazioaren, garapenaren eta parte-hartze aktiboaren bidez (Bancayán-Ore, Vega-Denegri, 2020). Horrenbestez, ikerlarien helburua problematika hori ezagutzea da, eta zer edo zer egitea horri buruz. Bestela esanda, kontua da eginez ikastea, beraz, ikertutako subjektuek ikertzaile gisa jardungo dute prozesuan zehar.

Puntu nagusia ekintza da, eta taldearen eginkizuna esparru funtzionala da. Ikerketa erlazionala da. Ikerketa-Ekintza-Parte hartzailearen balio nagusia *emaitzen (ezagutzen) aniztasuna* da: oinarritzko langileen edo erdi-mailako prestakuntzaren parte-hartzea ahalbidetzen duten esperientzia espezifikoek buruzko eztabaidetatik hasi beste modu aurreratuago batzuetara iritsi arte. Ikerketa-estrategia horren uneak dira, besteak beste, ezagutzea (azaltzea), ulertzea (hermeneutika) eta kritikatzeta (hausnarketa eta teoria kritiko soziala). Errealitatea ulertzeak berekin ekartzen du bizipenen atzetik dauden erlazioak ezagutzea.

Hurbilketa metodologiko horren ezaugarriak honela laburbil ditzakegu:


Zertarako ikertzen dugu? Gauzak egiteko modua hobetzeko, eta, aldi berean, jarduera bera eta hura egiten den testuingurua hobeto ulertzeko. Aldaketa ez

da berez justifikatzen, aldaketak bat etorri behar du garatzen den gizarte edo sistemaren balioekin, betiere kontuan hartuta nori egiten zaion mesede edo kalte.

Zer ikertzen da? Praktika soziala, instituzionala eta komunitarioa, kasu honetan, hobetu daitekeen egoera baten azterketaren bidez. Arazoak nagusiki praktikoak dira, eta inplikaturako pertsonen konpromisoa hartzen dute, eta ikerketa-subjektu bihurtzen dira, hobetu nahi den egoera behar bezala aztertu ahal izateko eta aldaketa positiboak sortzera bideratutako erabakiak hartu ahal izateko.

Nork ikertzen du? Azterlanaren errealitatean zuzenean inplikaturako pertsonen. Gure kasuan, honako hauek dira: Berdintasun Arloko eta beste arlo batzuetako teknikariak, politikariak, Emakumeen Kontseiluko kideak, komunitatean aritzen diren auzokideak eta, oro har, zainketen horniduran borondatez parte hartzen dutenak, eta horiekin batera, adituak ere bai, partaidetza-prozesuaren aholkulari eta bermatzaile jarduten dutelako. Horrez gain, banakako hurbilketa ere badago, nork bere hausnarketa egin dezan.

Nola ikertzen da? Ikerketaren eta ekintzaren eredu metodologikoa irekiera-eta itxiera-faseen arabera egituratzen da, eta fase horiek aldatu egiten dira testuinguruen arabera (Martí, 2002), baina honako hauek funtsezkotzat jo ditzakegu:





Iturria: geuk egina.

Prestakuntzako eduki teorikoak eta diseinu metodologikoa

Prestakuntzaren diseinua egiteko, honako ikerketa-galdera hauek landu dira: Parte-hartzaileek zer hartzen dute zainketatzat? Ikuspegi horretatik lan egiten da? Nola lantzen ari dira zainketak? Nola hobetu genezake gizarte-zerbitzuen lana?

Eduki teorikoen azalpenaren helburua da parte hartzen duten pertsona guztiek gai horri buruz duten ezagutza zabaltzea, eta zainketen antolaketa soziala ulertzen laguntzea, lehendabizi gogoeta indibidualari eta gero kolektiboari bide emateko. Hausnarketa horretan oinarrituta, kontzeptualizazio partekatua eraiki behar da, eta horrek egungo praktika instituzionalak hobetzeko eta berritzeko ekintzak eragingo ditu. Ezagutzeko, ulertzeko eta hausnarketarako uneek gidatu dute prestakuntzaren eduki teorikoen zein metodologiaren diseinua.



Iturria: geuk egina.

Saioetan erabiliko den metodologiaren diseinua:

Helburua	Lekua eta harrera antolatzea.	Teknika	
Prozedura/ Edukiak	• Prestakuntzako lekua antolatzea eta papelografoa, aulkiak, ura, edalontziak, boligrafoak eta papera jartzea. • Pertsonak agurtzea, heldu ahala, eta giro atsegina sortzea.		
Baliabideak		Denbora	30'
		Memoria	
Helburua	Ongietorria, eskerrak ematea eta proiektua aurkeztea	Teknika	Azalpena
Prozedura/ Edukiak	Ongietorria, eskerrak ematea parte hartzeagatik eta prestakuntzaren programazioa azaltzea. Geure burua aurkeztu aurretik, aurkezpen-txanda bat egitea, izena eta nondik datozen adieraz ditzaten (laneko giroa). • Helburuak azaltzea: • Ikerketaren proiektua aurkeztea. • Hausnarketa/ikerketaren abiapuntua aurkeztea. • Elkar ezagutzea. • Funtsezko lehentasunak adostea. • Parte-hartzaileen argazkiak ateratzeko baimena eskatzea. • Itzulketa egiteko dokumentua.		
Baliabideak		Denbora	15'
		Memoria	Akten egileak izendatzea.
Helburua	Taldeko kideek gaiari buruz zer ezagutzen duten eta interes-maila adierazteko guztien arteko ariketa.	Teknika	
Prozedura/ Edukiak	Ondoko pertsonarekin batera, eta hobe lan-esparru berekoa bada, <i>post-it</i> batzuetan erantzutea honako galdera hauek (<i>post-it</i> horiek aurrez banatuko zaizkie): 1. Zer dakigu zainketei buruz? Gure lan-esparruko zein kontzeptuekin zer-ikusia dute? 2. Zeintzuk dira zainketei buruzko ardura nagusiak? • Berotze-ariketa da, beraz, komeni da bururatzen zaiena azkar jasotzea. Horrela, hobeto jakingo dugu nondik abiatuko garen, eta hizlarietara erreferentzia emango zaie, gaiari nondik heldu hobeto jakiteko. • Behin <i>post-it</i> idatzita, txanda azkarra egingo dugu, eta ohartxoak arbelean itsatsiko ditugu.		
Baliabideak		Denbora	30'
		Memoria	Argazkiak (aldeztatik aurretiko baimena eskatuta) egitea, gero, itzulketa-dokumentuan sartzea.

Zainketen hirirako trantsizioa egiten

Helburua	Azalpen teorikoa			Teknika
Prozedura/ Edukiak	• 10:15-11:00 Hizlariak talde handian hitz egingo dute, eta gaiari buruzko azalpen teorikoa eta hurbila emango dute. • Azkenean, galdera zehatzak egiteko txanda antolatuko da. Horren aurretik, parte-hartzaileei jakinaraziko zaie azalpenaren edukiak taldeka landuko direla geroago. • Hasierako ariketetan nolabait argituko da zein eduki sakonago landu ahal diren.			
Baliabideak	Papelografoan	Denbora	45'	Memoria Akta eta argazkiak

Atsedena

Helburua	Hausnarketa eta eztabaidak, talde txikietan			Teknika
Prozedura/ Edukiak	• 11:20-12:00 Talde naturalak osatuko dira, eta gutako bakoitzak dinamizatzaile jardungo du (denborak antolatzen eta eztabaidak orekatzen). Aldez aurretik antolatuko ditugu taldeak, zenbat parte-hartzaile dauden. Lehenik, parte-hartzaile bakoitzak fitxa bat betekiko du, banaka; gero, txanda bat irekiko da, eta bakoitzak edukia laburbilduko dio talde osoari. 1. Zer nabarmenduko zenukete, entzundako edukien artean? 2. Nola landu daitezke zainketak, udal-zerbitzuetatik? Zeintzuk dira esparru/eremu horretako premia nagusiak? 3. Udal-zerbitzuek zeri eman beharko liokete lehentasuna?			
Baliabideak	Banakako fitxak, folioak eta boligrafoak	Denbora	45'	Memoria Fitxak

Prestakuntzako parte-hartzaileak

Azkenean bi prestakuntza-saio egin ziren, ez hiru, hasieran diseinatu genuen bezala. Gonbidatutako kolektiboetako 28 kidek parte hartu zuten, bi saioak kontuan hartuta. Gehienak emakumeak izan dira, Herritarren Segurtasunerako Arloko gizon bat izan ezik.

Udal-arloen eta parte-hartzaileen arteko harremanak

Udal-arloak	Parte-hartzaileak	Parte-hartzaileak Arloetako zuzendariak	Parte-hartzaileak Arloetako teknikariak	Parte-hartzaileak	Guztira
Jarraipen Batzorde Politikoa	3				3
Emakumeen Kontseilua				5	5
Berdintasun Arloa		1	4		5
Herritarren Arreta eta Partaidetzarako eta Nazioarteko Arloa		1	4		5
Gazteria eta Kirol Arloa			1		1
Mugikortasun eta Jasangarritasun Arloa			1		1
Osasun eta Kontsumo Arloa			2		2
Hiri-berroneratzeko Batzordea SURBISA			1		1
Gizarte Ekintza Arloa			2		2
Herritarren Segurtasun Arloa			3		3
Guztira	3	2	18	5	28

Lehenengo bilera antolatzea konplikatu izan zen, COVID-19ren ondoriozko egoera dela eta. Horri gehitu behar zaio, gonbidatuek ere beren agenda zutela, eta hori ere kontuan hartu behar zela denboraren kudeaketan. Parte-hartzaileak, besteak beste, toki-administrazioako teknikariak, hiriko komunitate-sareko ordezkariak eta, bereziki, Emakumeen Kontseiluan parte hartzen duten hainbat elkartetako eta mugimendu feministako emakumeak izan dira. Parte-hartzea hasieran aurreikusitakoa baino txikiagoa izan da, batez ere, emakume-elkarteetako eta mugimendu feministako ordezkariena. Eragile horiek, hain zuzen ere, funtsezkoak dira gure auzoetako, hirietako eta herrietako familia- eta komunitate-eremuetako zaintzak emateko eta horri buruz hausnartzeko. Era berean, toki-administrazioako arloetako ordezkarien parte-hartzeari buruzko hasierako itxaropenak handiak izan ziren, bai kopuruari dagokionez, baita arloetako erantzukizun-mailei dagokienez ere. Itxaropen horiek bete egin dira Berdintasun Arloan eta Herritarren Arreta eta Partaidetzarako eta Nazioarteko Arloan.

4.2. Prozesuaren balorazioa

Prestakuntza-saioen hasieran azalpenak eman ziren, eta azalpen horiek abiapuntutzat hartu ziren, hausnarketa kolektiboa egiteko. Hausnarketa abiarazteko, hainbat galderaren inguruko talde dinamizatuak antolatu ziren. Talde batean ordezkari politikoak eta Berdintasun Arloko zuzendariak soilik aritu ziren. Gainerako taldeetan hainbat arlo eta sailetako udal-teknikariak aritu ziren, baita Bilboko Emakumeen Kontseiluan parte hartzen duten elkarteetako ordezkari batzuk ere.

PRESTAKUNTZAKO LEHEN SAIOA

Honako galdera hauek egin ziren: Zer nabarmenduko zenuke azalpen teorikoari buruz? Zure lanaren arloan, zer lerro etortzen dira zure lanarekin bat? Zainketak nola landu daitezke udal-zerbitzuetatik? Zure ustez, zeintzuk dira arlo horretako premia nagusiak? Gizarte-zerbitzuek zeri eman behar diote lehentasuna? Taldeetan sortu ziren funtsezko ideiak talde osoan azaldu eta partekatu ziren. Azkenean, hurrengo saioan parte hartzeko gonbita egin zen saioaren amaieran.

Eztabaidak

Lehenengo bi galderetan, hainbat gairi buruzko eztabaidak egin ziren, baina horien garrantzia eta sakontasuna bestelakoak izan dira, gogoeta zein kolektibotatik egiten zen.

- *Ordezkar*i politikoak eta teknikariak ados egon ziren zainketei buruzko azalpen teorikoarekin. Egokitzen iritzi zioten hausnarketaren hasieran definizio orokorra egiteari, gaiari sakonago heldu ahal izateko.
- Bilboko Emakumeen Kontseiluan parte hartzen duten *elkarteetako kideek* adierazi zuten zainketei buruzko definizio zabalagoa eman behar zela, definizio horrekin identifikatu ahal izateko eta identifikazio horrek ordezkatzeko dituela sentituzeko.



Ordezkarri politikoak

Egiturazko aldaketaren garrantzia azpimarratu da, pertsonen zaintza erdigunean jartzeko.



Teknikariak

Hain ustez, zaila da zainketen gaineko definizio partekatua adostea. Adostasunak lortzea zaila izan da, beraz, toki-administrazio arloen arteko komunikazioa eta koordinazioa ere bai.

Haiek adierazi dute testuinguru teorikoak ikusarazten dituela hainbat arlotan egiten diren jarduerak, eta teknikariek ez zutela onartu jarduera horiek zaintzari lotuta egotea.

Balioa kentzeari eta zainketen banaketa desorekatuari lotutako gaiak bereziki aipatu dituzte.




Emakumeen Kontseiluko elkarteetako ordezkariak

Haiek aldarrikatu dute pertsonak azterketaren erdian jarri behar direla, eta azpimarratu dute nor bere burua zaintzeko garrantzia eta, orokorrean, zaintzearen garrantzia.

Zaintzaileen eta zaintzak jasotzen dituzten pertsonen arteko botere-harremanak azpimarratu dituzte, botere- eta menderatze-harremanek zainketak zeharkatzen dituztela adierazita.

Desadostasunik handiena esplizituki adierazi dute elkarteetako ordezkariak. Haiek aldarrikatu zuten ordezkaturik ez izatea emandako esparruan. Horrez gain, bereziki nabarmendu zuten ezinbestekoa dela zaintzaile baztertuenak, hau da, irregulartasun-egoeretan dauden emakume migratuak, irudikatzea eta ikusaraztea, beren egoera erregularizatu behar baitute, beraz, erregularizazio-prozesu horiek arintzeko trantsizio-politikak diseinatu beharra aldarrikatu zuten.

Era berean, azaldutako edukietan ikuspegi komunitarioa falta zela adierazi zuten, eta azaldu zuten azalpenetan emandakoak ez bezalako beste kontzeptu batzuk daudela.



Premiak identifikatzea

Beharren identifikazioa zaintzak emateko lehen lerrotik hurbilago dago, eta zehatzagoa da, parte-hartzaileen egoeraren eta kolektiboen arabera. Segidan azalduko dugu:

- *Ordezkarik politikoak*

Udal-arloetako langileek eta herritarrek prestakuntza behar dute.

Zainketak batera landu behar dituzte udaleko teknikariek, gizarte-mugimenduek, elkarteek eta sindikatuak ere bai.

Elkarlana egin behar da, eta bertan plangintza, ekintza eta horretarako aurrekontua sartu behar dira.

- *Udaleko teknikariak*

Prestakuntza behar da, zainketen inguruan lan egin ahal izateko, lankidetzaz, koordinazio-, prestakuntza-, sentsibilizazio-, komunikazio- eta, azkenik, tratu indibidualizatuaren printzipioen arabera.

Aurrekontu-zuzkidura handiagoa behar da, zainketen arloan modu holistikoagoan, integralagoan eta kalitate handiagoz lan egin ahal izateko.

Zaintzaileak zaindu behar dira: zaintzaileei lagun egiteko eta laguntzeko kanpainak antolatu behar dira, eta zaintza-lanaren aitormena eta soldata handitu behar dira.

Zeharkako planak egin behar dira, zaintzak ardatz nagusitzat hartu behar dituzten udaleko arlo eta plan guztietan.

Udalak berak sustatu behar ditu eremu hori lantzeko kontziliazio-politikak.

- *Emakumeen Kontseiluko elkarteetako ordezkariak*

Pertsonak erdigunean jarri behar dira, ikuspegi intersektorialetik.

Hirian bizi diren pertsonen azterketa egin behar da, emakumeen ikuspegitik eta desberdintasunean eta lege-egoeran oinarrituta. Gainera, kontuan hartu behar da babes-sare bat dagoen ala ez (familia, adiskidetasuna, gizarte-ingurunea), bai eta gabezia horrek seme-alabengan izan ditzakeen ondorioak ere.

Bilboko udalerriko etnia- eta kultura-aniztasuna identifikatu eta balioztatu behar da, udal zerbitzuek hiri heterogeneo eta anitzeko beharrei (eskakizunei) erantzun ahal izateko.

Nork bere burua zaintzeko jarduerak, banakakoak zein komunitarioak, garatu behar dira, pertsona bakoitzaren eta haren familia- eta gizarte-ingurunearen osasun mentala, emozioak eta gorputza hobeto zaintzeko.

Ekarpenak

Garrantzitsua da jakitea pertsona bakoitzak zein posiziotatik egin dituen ekarpenak, kontuan hartuta zaintza-lanak pertsona batzuek beste batzuek baino gertuago ezagutzen dituztela.

Ordezkaritokiak



Udaleko ahalmenari lehentasuna eman behar zaio.

Erantzunkidetasuna sustatzeko lan-baldintzak sustatu behar dira.

Udaleko arlo bakoitzari buruzko alde aurretiko azterketa eta diagnostikoa egin behar dira.

Udaleko teknikariak



Lehentasuna eman behar zaie udaleko langileen prestakuntzarako eta sentsibilizaziorako kanpainei.

Zeharkakotasunetik jardutea: diziplina anitzeko lankidetzak-esparruak sortuz.

Udalan bertan koordinazio handiagoa ezarri behar da, beste zerbitzu batzuekin eta komunitatearekin batera.

Elkarrekin ordezkaritokiak



Haurrak eta adinekoak zaintzeko esparruak antolatu behar dira, eta ordutegi malguak eta doakoak izan behar dute.

Zaintzarako espazioak sustatu behar dira (autozaintza eta zaintza komunitarioa), prestakuntzaren eta tailerren bidez, eta politika osoan eragina izango duen balio-aldaketa bultzatu behar da. Honako balio hauek bultzatu beharko lirateke: kultura-aniztasuna, hurbiltasuna, emozioak eta ikusgaitasuna, genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala, bai eta genero-unitateak indartzea ere.

PRESTAKUNTZAKO BIGARREN SAIOA

Aurreko saioan bezala, bigarrena ere bi zatitan egituratu zen. Azalpenezko zatian hiru bizipen aurkeztu ziren, udal-politikei buruz: bata, Bartzelonakoa, eta beste biak, Bilbokoak. Hiru politika horietako proiektuetan zainketak txertatu dira, nahiz eta zainketei heltzeko modua bestelakoa izan. Aurkezpenak egin ondoren, saioaren bigarren zatia antolatu genuen. Parte-hartzaileen artean talde txikiak antolatu ziren, talde-dinamiken bidez deskribatutako proiektuen interesari eta ekarpenei buruz hausnartzeko. Honako galdera hauek antolatu genituen: 1) Zer nabarmenduko zenuke entzundakoari buruz? 2) Zer izan daiteke erabilgarria, gure ikuspuntutik? Zergatik?

Eztabaidak

Lehenengo galderak parte-hartzaileei lagundu zien zainketak antolatzeko beste modu batzuen gaineko hausnarketa egiten. Honako ideia hauek nabarmendu ziren:

Ordezkaritza politikokoak

Hiru esperientzia horietan dauden zainketen ikuspegi global eta zeharkakoak aukera ematen du hiria xehetasunez aztertzeko, askotariko ikuspegiak kontuan hartuta.

Ezartzen ari diren proiektuen gaineko ikuspegi globalagoa behar da.

Zaintza-lanari edo zainketei heltzeak konplexua izaten jarraitzen du.

Teknikariak	Hiriak atsegina izan behar du hiritar guztientzat. Hiriaren esparru pribilegiatua da zainketak eraldatzeko. Garrantzitsua da zeharkakotasuna udal-eremuan lantzea. Sareko lanak eta udala osatzen duten arloen arteko koordinazioak zainketak modu integralean koordinatzen eta jorratzen laguntzen du.
	Komunitatearen eremuari garrantzia handiagoa eman behar zaio. Horrek esan nahi du erakundearen arteko harremanak (erakundearen eta komunitatearen artekoak) ehundu behar direla, eta herritarrek eta zainketaileek harreman horietan sartu behar direla, elkarrekin inplika daitezkeen konponbide komunak bilaketan. Aurrekontu eta giza baliabide handiagoa eman behar zaie zainketei buruz jarduten duten arlo guztiei. Zainketak Bilboko Udalaren agenda politiko eta instituzionalaren funtsezko zati bat dira.
	Komeni da zuzeneko komunikazioa sortzea zainketetan inplikaturik besteko erakunde batzuekin, eta langileentzako eta zainketaileentzako lan-baldintza duinagoak, bidezkoagoak eta ekitatiboagoak ezartzea, zainzak jasotzen dituzten pertsonarekin kalitatezko harremana sustatzeko.

Elkarteetako ordezkariak	Garrantzitsua da lehentasuna ematea zerbitzuaren kalitateari eta jarduketara espezifikoei. Horretarako, zainketailearen eta zainketak jasoko dituen pertsonaren arteko komunikazioa areagotu behar da.
	Garrantzitsua da mendetasun handiko pertsonen zainketaileen kolektiboa zainketei buruzko diskurtsoan integratzea; eta horrek berekin ekartzen du zainketa-lanen garrantzia aintzat hartzea eta horretarako berariazko jarduerak, zerbitzuak eta politika publikoak abian jartzea.

Ekarpenak

Berriro ere, ekarpenak askotarikoak izan dira, eta horrek agerian utzi ditu parte-hartzaileen jarrerak eta egoerak.

Ordezkarri politikoak



Tokiko eta munduko eremuen ikuspegiek elkarren osagarri izan behar dute, eta udaleko arlo guztien zeharkakotasuna sustatu behar da.

Arazoa deszentralizatu behar da, arazoari aurre egin ahal izateko, Bartzelonako esperientzian egin duten bezala.

Eredu prediktiboak ezarri behar dira.

Zainketen gaineko zeharkako plan estrategikoa.

Teknikariak



Udaleko arloen arteko komunikazioa sustatu behar da, bikoiztasunik gerta ez dadin, eta herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuen eraginkortasuna hobetzeko. Erakundeen arteko koordinazioa garrantzitsua da.

Egiten den horri erreparatu behar zaio, ongizate orokorrean eta, bereziki, behartsuenengan arreta handiagoa jarrita. Pertsonengan ardaztutako politika publikoak garatu behar dira, kudeaketa soziala eta ekonomikoa hobetzeko. Horiek horrela, zainketa-plana egin behar da, gainerako eremuetara hedatzeko.

Sentsibilizazio-kanpainak egin behar dira, erakundeak eta herritarrak zaintza-lanen problematikari balioa ematen has daitezen.

Elkarteen ordezkariak



Zainketen aniztasuna ulertzeko eta ezagutzeko premia azpimarratu dute.

Jabetu behar dugu parte hartzeko modu publikoak batzuetan baztertzailak direla; horregatik, parte hartzeko erudia aldatu behar da.

Etorkizuneko jardunerako gomendioak

Prestakuntza-saioen emaitza diren eztabaidek, kritikek eta ekarpenek zenbait jardun-ildo iradokitzen dituzte, zaintzak tokiko politika publikoen erdigunean jartzeko helbururantz aurrera egiteko. Honako gomendio hauek iradoki ziren:

Lehenik eta behin, *erakundean kultura-aldaketa* abiaraztea: sentsibilizazio-kanpainen eta prestakuntzako ikastaroen bidez, udaleko arloetan lan egiten duten langile guztiei zuzenduta, baita herritar guztiei zuzenduta ere. Ekimen horietan honako eduki hauek bildu beharko lirateke:

- Balorazio soziala eta ekitatearen bermea zainketen banaketan, gizartean duten rol nagusia aintzat hartuta, eta haiekiko erantzukizunaren sozializazioa sustatuta.
- Antolaketan askotariko eragileek parte hartzen dute. Besteak beste, honako hauek dira: estatua eta administrazio publikoak, merkatuak, familiak edota bizikidetz-unitateak eta komunitatea.
- Zainketak anitzak dira.
- Zaintzaileak aintzat hartu eta zaindu behar dira.
- Zaintzaileen eta zaintzak jasotzen dituzten pertsonen artean botere-harremanak daude.
- Zaintzaileak eta zainketen hartzzaileak erdian jarri behar dira, ikuspegi intersektzionaletik.

Bigarrenik, *tokiko politika publikoetan eragitea*, teknikari guztiei emandako prestakuntzatik abiatuta: *erakundearen antolamendu-aldaketa* sustatzeko, koordinazio-estrategiak eskaintzeko, udal-arloen artean ezagutza eta informazioa partekatzeko eta hauek praktikan jartzen laguntzeko:

- Teknikarien lan bateratua
- Zeharkako lan-dinamika, sarean modu koordinatuan lan egiten eta diziplina anitzeko lankidetz-esparruak sortzen. Udaleko arloen eta erakundeen arteko lana sustatzeko koordinazioa egin behar da.

Antolamendu-aldaketa hori egiteko, giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak eduki behar dira, udal-arlo bakoitzean aurretiko azterketa eta diagnostikoa egin ahal izateko eta arlo horietan guztietan zainketen zeharkako plan estrategikoak egin ahal izateko. Plan horiek abian jartzeko, elkarlanaren bidezko metodologia eta lan-baldintza duinak behar dira, erantzunkidetasuna sustatzeko.

Azkenik, *komunitatearen parte-hartzea sustatu* behar da, jardunbide egokiak diseinatzeko. Jardunbide horiek lagunduko dute zainketen hirirako trantsizioa egiten.



Emakumeen Kontseiluko elkarteetako ordezkariak argi adierazi dute parte-hartze publikoaren moduak, batzuetan, baztertzailak direla; beraz, parte-hartze ereduak aldatzea eskatzen dute. Politikariak zein teknikariak azpimarratu dute teknikarien, elkarteen, mugimendu feministaren, sindikatuen eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen arteko lan bateratuaren garrantzia; bestela esanda, oso garrantzitsutzat jotzen dute trantsizio horretan komunitate-eremuko pertsonak eta elkarteak parte hartzea. Udal-arloetako teknikarien hitzetan eremu komunitarioan parte hartzeak esan nahi du erakundeen arteko harremanak ehundu behar direla, eta herritarrek eta zaintzaileek parte hartu behar dutela beren auzoetan edota komunitateetan garatuko diren ekintzetan.

Hala eta guztiz ere, ikerketa-ekintza-parte hartzaile honetan ikusi dugunaren arabera, emakume-elkarteen, elkarte feministen edo irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuen parte-hartzea txikia izan da. Parte-hartze politikoari buruzko literaturak erakusten du (Larrinaga eta Amurrio, 2013) herritarrek ez dutela erakunde politikoekiko atxikimendurik sentitzen. Banantze horrek esan nahi du komunitate-eremuko gizarte-mugimenduak eta elkarteak edo erakundeak, bereziki, toki-administrazioetatik aldentzen direla. Literatura espezializatuan jaso dira urruntze hori azaltzeko arrazoi batzuk (Martínez-Palacios, 2019): administrazioek gizarte-mugimenduen ekimenak kooptatzea; aurreko planetan edo ekintzetan hitzartutakoa ez betetzea; eta elkarteen eragin-ahalmenaren galera, administrazioen dirulaguntzak jaso dituztelako. Hala eta guztiz ere, Administrazioak berak pentsatzen du tentsio oso emankorra sortzen dela, gizarte-mugimenduak antolatzen eta egituratzen direnean, eta presioa egiten dutenean; presio hori, hain zuzen ere, oso beharrezkoa da tokiko politiketan aurrera egiteko.

Herritarrekin eta gizarte-mugimenduekin zubiak eraiki ahal dira **gune demokratikoetan demokrazian sakontzeko estrategiak txertatuz**, erakunde publikoek elkartek, gizarte-mugimenduak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak aldaketa-eragile gisa entzun eta onar ditzaten. Aintzatespen horrek askotariko eragileen arteko elkarriketa bideratuko luke, eta aukera emango luke barrutietan eta auzoetan egin behar diren ekintzen inguruko akordioak lortzeko. Horrek guztiak herritarren ongizatea handituko luke.

Politika publikoen ikuspegi erlazionalari erreparatzen badiogu, politika ez litzateke izango kanpoko *inputen* emaitza edo estatutik kanporako emaitza, baizik eta “ekiten ari den estatu” batena (Oszlak eta O’Donell, 1976, *in* Ceminari eta Stolkiner, 2018). Ekiten dabilten estatuak edota erakundeek ahalduntze kolektiboa sustatzen dute (Montaño, 2019), baita lurraldeetako elkartegintza ere.

Hausnarketa kolektibo horretan parte hartu dutenek igarri dute espazio horiek eraikitzeko aukera. Izan ere, espazio horiek ezinbestekotzat jotzen dituzte, zainketen antolaketaren demokratizaziorako trantsizioan aurrera egiteko.



Erreferentzia bibliografikoak

- Alonso, Luis Enrique (2004): “La sociedad del trabajo: debates actuales. Materiales inestables para lanzar la discusión”. *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 107(04), 21-48.
- Arrillaga, Alejandro (2009): “Igualdad de género ¿con qué educación infantil?”, *Revista Infancia. Educar de 0 a 6 años*. 113, 32-40.
- Balbo, Laura (1994): La doble presencia, in Cristina Borderías, Cristina Carrasco eta Carme Alemany (ed.), *Las mujeres y el trabajo: rupturas conceptuales*. Bartzelona: Icaria-Fuhem, 503-514.
- Bancayán-Ore, Carlos eta Vega-Denegri, Patricia (2020). La investigación acción en el contexto educativo. *Paideia XXI*, 10. liburukia, 1. zenbakia, urtariletik ekainera, 233-247.
- Barbeta-Viñas, Marc eta Cano, Tomás (2017): ¿Hacia un nuevo modelo de paternidad? Discursos sobre el proceso de implicación paterna en la España urbana. *Reis*, 159, 13-30.
- Blasco Vidal, Carla (2021): *Anàlisi en l'impacte de les Superilles en la Qualitat de l'Aire de Barcelona*. Universitat Politècnica de Catalunya. Bartzelona. Graduaren Amaierako Lana. Hemen eskuragarri: <https://upcommons.upc.edu/handle/2117/355360>
- Bonet-Martí, Jordi (2021): Construir gobernanza participativa: Redes que (co) producen bienestar, in Ricard Gomà eta Gemma Ubasart (ed.), *Vidas en transición. (Re)construir la ciudadanía social*, 313-330 orr. Tecnos, Madril.
- Brugué, Joaquim; Boada, Julia eta Blanco, Ismael (2012): Els Motors de la innovació a l'administració pública. Hemen eskuragarri: https://ddd.uab.cat/pub/estudis/2012/115549/motinnadmpubsintesi_a2012.pdf
- Bureau, Viola eta Kröger, Teppo (2004): The local and the national in community care: Exploring policy and politics in Finland and Britain. *Social Policy & Administration*, 38(7), 793-81.
- Callejo, Javier eta Prieto, Carlos (2015): Distribución y organización de los tiempos de trabajo, cuidados y ocio con una perspectiva de género, in: Carlos Prieto, (ed.),

- Trabajo, cuidados, tiempo libre y relaciones de género en la sociedad española*, 53-86 orr. Cinca Madrid: Biblioteca Ciencias Sociales.
- Cano, Tomás (2018): Los cuidados en la práctica. Clase social y estrategias familiares en el cuidado a mayores con dependencias severas. *Revista Internacional de Sociología* 76(3), 1-15.
- Carrasco, Cristina (2001): La sostenibilidad de la vida humana: ¿un asunto de mujeres?, *Mientras Tanto* (82. zenbakia), 43-69.
- Carrasco, Cristina, Borderías, Cristina eta Torns, Teresa (2019): *El trabajo de cuidados. Historia, teoría y prácticas*. Madril: Catarata.
- Carrasquer, Pilar (2013): El redescubrimiento del trabajo de cuidados: algunas reflexiones desde la sociología. *Cuadernos de Relaciones Laborales*, 31(1), 91-113.
- Carreño Martín, Gerardo E. (2020): *Barrios en evolución, de la forma a la función: El caso de las superillas sociales*. Universitat Politècnica de Catalunya. Bartzelona. Masterraren amaierako proiektua. Hemen eskuragarri: <https://upcommons.upc.edu/handle/2117/352924>
- Ceminari, Yanina; Stolkiner, Alicia (2018). El cuidado social y la organización social del cuidado como categorías claves para el análisis de políticas públicas. *X Congreso Internacional de Investigación y Práctica Profesional en Psicología del MERCOSUR*. Facultad de Psicología-Universidad de Buenos Aires, Buenos Aires.
- CES-Consejo Económico y Social (2020). El sistema de promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia. *Colección Informes*, 3. Madril: CES.
- Clarke, Susan (1993): The new localism. Local politics in a global era, in Edward G. Goetz eta Susan E. Clarke, *The New Localism. Comparative Urban Politics in a Global Era*, 1-21 orr. Londres: Sage.
- Coltrane, Scott (2000): Research on household labor: Modeling and measuring the social embeddedness of routine family work. *Journal of Marriage and the Family*, 62 (azarokoa), 1208-1233.
- Comas-d'Argemir, Dolors (2014): Los cuidados de larga duración y el cuarto pilar del sistema de bienestar. *Revista de Antropología Social*, 24, 375-404.

- Comas-d'Argemir, Dolors (2017a): Cuidados, género y ciudad en la gestión de la vida cotidiana, in Patricia Ramírez Kuri (ed.), *La erosión del espacio público en la ciudad neoliberal*, 59-90 orr. Mexiko: UNAM.
- Comas-d'Argemir, Dolors (2017b): El don y la reciprocidad tienen género: las bases morales de los cuidados. *Quaderns-e*, 22(2), 17-32.
- Comas-d'Argemir, Dolors eta Bofill-Poch, Sílvia (eds.) (2021): *El cuidado importa. Impacto de género en las cuidadoras/es de mayores y dependientes en tiempos de la Covid-19*, Fondo Supera COVID-19 Santander-CSIC-CRUE Universidades Españolas.
- Cordoni, Elena (1993): "Las mujeres cambian los tiempos". *Cuadernos de Relaciones Laborales*, 2, 281-299.
- Daly, Mary eta Lewis, Jane (2011): El concepto de 'social care' y el análisis de los estados de bienestar contemporáneos, in Cristina Carraso, Cristina Borderías y Teresa Torns (Ed.), *El trabajo de cuidados. Historia, teoría y políticas* [The Concept of Social Care and the Analysis of Contemporary Welfare States] (225-251 orr.). Madril: Catarata.
- Díaz Gorfinkel, Magdalena (2019): (Des)protección legal y vulneraciones en el empleo del hogar y de cuidados, in Silvia Carrillo Gómez (ed.), *Abordant la crisi de les cures: polítiques, treballs i experiències locals*, 72-99 orr. Bartzelona: ICPS.
- Durán, M^a Angeles (2018): *La riqueza invisible del cuidado*. Valentzia: Universitat de València.
- Esquivel, Valeria (2011): La economía del cuidado: Un recorrido conceptual. In N. Sanchís eta M. P. Foti (Eds.), *Aportes al debate del desarrollo en américa latina. Una perspectiva feminista*. Buenos Aires: Red de Género y Comercio.
- Esteban, M^a Luz eta Otxoa, Isabel (2010): El debate feminista en torno al concepto de cuidados (Diálogo con Olga Abasolo). *CIP Ecosocial*, 10, 1-9.
- Eustat-Euskal Estatistika Erakundea (2018): *Euskadi 28en EBn. 28 oinarritzko adierazle gure herrialdearen egoera ezagutzeko, Europar Batasunaren barruan*. Vitoria-Gasteiz: Eustat.
- Eustat-Euskal Estatistika Erakundea (2020a): *Euskal AEko bigarren postuan dago 65 urte eta gehiago duten biztanleen Europar Batasuneko herrialdeen sailkapenean*. 2020-

- 08-18ko prentsa-oharra, Euskadi Europar Batasunean. 2020. Hemen eskuragarri: : https://www.eustat.eus/elementos/ele0017500/ti_la-ca/not0017522_c.html
- Eustat-Euskal Estatistika Erakundea (2020b): *Bizi-itxaropena jaiotzean, Euskal AEn, heriotza-kausaren, lurraldearen eta eskualdearen arabera, sexuari eta urteari jarraikiz. 1977-2019*. Hemen eskuragarri: https://es.eustat.eus/elementos/ele0000000/ti_esperanza-de-vida-al-nacimiento-en-la-ca-de-euskadi-por-causa-de-defuncion-territorio-historico-y-comarca-segun-sexo-y-ano-1977-2019/tbl0000031_c.html
- Eustat-Euskal Estatistika Erakundea (2020c): *Euskal AEko biztanleria, lurralde eremuaren, adin betearen talde handien eta sexuaren arabera* Hemen eskuragarri: https://www.eustat.eus/bankupx/pxweb/es/DB/-/PX_010154_cepv1_ep06b.px-
- Eustat-Euskal Estatistika Erakundea (2020d): *Ordaindu gabeko etxeko lanaren balioa Euskal AEko BPGren % 27,7 izan da 2018an. 2020-12-23ko prentsa-oharra. Etxeko lanaren kontu satelitea. 2018*. Hemen eskuragarri: https://www.eustat.eus/elementos/el-valor-del-trabajo-domestico-no-remunerado-equivale-al-277-del-pib-de-la-c-a-de-euskadi-en-2018/not0018045_c.html
- Ezquerria, Sandra (2019): Cartografiant la crisi de les cures en l'ambient català: polítiques públiques, famílies i mercat, in Silvia Carrillo Gómez (ed.), *Abordant la crisi de les cures: polítiques, treballs i experiències locals*, 5-45 orr. Bartzelona: ICPS.
- Ezquerria, Sandra eta de Eguía Huerta, Maria (2020): ¿Redistribución de los cuidados? El papel de la familia, el mercado y las políticas públicas en Catalunya. *Política y Sociedad*, 57(3), 769-795.
- Ezquerria, Sandra eta Mansilla, Elba (2018): *Economía de les cures i política municipal: cap a una democratizació de la cura a la ciutat de Barcelona*. Bartzelona: Ajuntament de Barcelona.
- Fantova, Fernando (2021): Construir fraternidad: los cuidados y la agenda comunitaria del bienestar, in Ricard Gomà eta Gemma Ubasart (ed.), *Vidas en transición. (Re)construir la ciudadanía social*, 295-313 orr. Tecnos: Madril.
- Federici, Silvia (2015): Sobre el trabajo de cuidado de los mayores y los límites del marxismo. *Nueva Sociedad*, 256 (martxo-apirila), 45-62.
- Gilligan, Carol (2013): El daño moral y la ética del cuidado, in Victoria Camps (ed.), *La ética del cuidado*. (10-39 orr.). Bartzelona: Cuadernos de la Fundació Víctor Grífols i Lucas.

- Gomà, Ricard eta Ubasart, Gemma (2021): Complejidades, incertidumbres y esperanzas: repensar y ejercer ciudadanía social en el siglo XXI, in Ricard Gomà eta Gemma Ubasart (ed.), *Vidas en transición. (Re)construir la ciudadanía social*, 331-345 orr. Tecnos: Madril.
- Gómez, Laura (2017): Cuando las feministas sueñan con democratizar las instituciones: por una protección social sin dominación, in Jone Martínez-Palacios (koord.), *Participar desde los feminismos*, 173-205 orr. Bartzelona: Icaria,
- González, Giselle (2021): Análisis comparado de procesos de descentralización urbana: los casos de Barcelona y Buenos Aires. *Estudios demográficos urbanos*, 36(2).
- Goss, Sue (2001): *Making Local Governance Work: Networks, Relationships and the Management of Change*. London: Palgrave.
- Hall, Tom eta Smith, Robin J. (2015): Care and repair and the Politics of urban kindness. *Sociology*, 49(1), 3-18.
- Herrero, Yayo (2014): Bases para un nuevo contrato social. *Revista El Ecologista*, Nº 83. Hemen eskuragarri:
<https://www.ecologistasenaccion.org/29239/bases-para-un-nuevo-contrato-social/>
- Himmelweit, Susan (2011): El descubrimiento del ‘trabajo no remunerado’: Consecuencias sociales de la expansión del término ‘trabajo’, in Cristina Carrasco, Cristina Borderías eta Teresa Torns (Eds.), *El trabajo de cuidados. Historia, teoría y políticas* [The Discovery of ‘Unpaid Work’: The Social Consequences of the Expansion of ‘work’] (Economía crítica & ecologismo social ed., 199-224 orr.). Madril: Catarata.
- INE (2020): *Índice de envejecimiento por Comunidad Autónoma*. Hemen eskuragarri
<https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=1452>
- Kazepov, Yuri eta Barberis, Eduardo (2017): The territorial dimension of social policies and the new role of cities, in Patricia Kennett eta Noemi Lendvai-Bainton (ed.), *Handbook of European Social Policy*, 302-318 orr. Edward Elgar Publishing.
- Larrinaga, Ane y Amurrio, Mila (2013): Género y estructura de oportunidad participativa local: el caso de Bilbao. *Revista Mexicana de Sociología*, 75(2), 201-223.
- Legarreta, Matxalen (2017): Notas sobre la crisis de cuidados: distribución social, moralización del tiempo y reciprocidad del tiempo donado en el ámbito doméstico-familiar. *Arbor*, 193(184), 1-15.

- Legarreta, Matxalen (2021): Etxeko zereginen eta zaintza-lanen banaketa EAEn: luzetarako begirada (1993-2018), in Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea (Ed.), *Nork zaintzen du? Zainketen gizarte antolaketari buruzko ekarpenak*, 85-114 orr.
- Legarreta, Matxalen; Sagastizabal, Marina (2020): *Tiempo, ciudadanía y desigualdades. Una aproximación a los usos del tiempo diario y al 'derecho al tiempo propio'*. Bartzelona: Col·lecció Dossiers del Temps, Ajuntament de Barcelona.
- Legarreta, Matxalen; Sagastizabal, Marina eta Aguirre-Miguel, Amaia (2019): Ser padre en un contexto de crisis económica: ¿avances hacia una “masculinidad cuidadora”? *XIII Congreso Español de Sociología*. Valentzia, 2019ko uztailearen 3tik 6ra.
- Martí Olivé, Joel. 2002. La investigación: acción participativa, estructura y fases. In *Martí Olivé, Joel, Montañés Serrano, Manuel eta Rodríguez-Villasante, Tomás. La investigación social participativa*. Mataró: El Viejo Topo, 79-123.
- Martín Carreño, Gerardo (2020): *Barrios en evolución, de la forma a la función: el caso de las supermanzanas sociales*. Bartzelona: Universitat Politècnica de Catalunya. Hemen eskuragarri: <https://upcommons.upc.edu/handle/2117/348155>
- Martínez Herrero, Ma José (2021): Propuestas desde la economía feminista en tiempos de pandemia, in Carlos Berzosa Alonso-Martínez (bild.), *Hacia la reorientación del modelo productivo de la economía española*, Economistas sin Fronteras, Dossieres EsF, 40. zk., 2021eko negua, 32-35.
- Martínez-Palacios, Jone (2019). *El giro participativo neoliberal*. Leioa: UPV/EHU.
- Martínez-Palacios, Jone eta Ormazabal Gaston, Andere (2022). La praxis interseccional en las políticas públicas: el poder de las metáforas. *Gestión Y Análisis De Políticas Públicas*, (28), 71–80.
- Massolo, Alejandra (2003): Políticas públicas locales de equidad de género. Una innovación en la gestión municipal, in Dalia Barrera eta Alejandra Massolo, *El municipio. Un reto para la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres*, 11-53 orr. Mexiko: Instituto Nacional de las Mujeres.
- Montaño, Carlos (2019): Desarrollo comunitario, economía solidaria, empoderamiento y participación. Un camino para la lucha social. *Estudios Críticos del Desarrollo*, IX. liburukia, 17. alea, 87-139.

- Moreno, Carlos; Zaheer Allan; Chabaud, Didier; Gall, Catherine eta Pratlong, Florent (2021): Introducing the “15-Minute City”: Sustainability, Resilience and Place Identity in Future Post-Pandemic Cities. *Smart Cities* 2021, 4, 93-111.
- Moreno-Colom, Sara (2021): Construyendo comunidad desde lo público: el caso de las Superilles Sociales. *Revista Española de Sociología (RES)*, 30(2), a27.
- Nogueira, Julia eta Zalakain, Joseba (2015). *La discriminación múltiple de las mujeres inmigrantes trabajadoras en servicios domésticos y de cuidado en la Comunidad Autónoma de Euskadi*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde.
- NBE (2016): *Hábitat III. La Conferencia de las Naciones Unidas centrada en los ciudadanos*. Quito, Ecuador. Hemen eskuragarri:
<https://www.un.org/es/chronicle/article/habitat-iii-la-conferencia-de-las-naciones-unidas-centrada-en-los-ciudadanos>
- Pastor Seller, Enrique (2008): *La participación ciudadana en los Servicios Sociales Municipales de la región de Murcia*. Murtzia: Universidad de Murcia.
- Pérez Díaz, Julio et al. (2020): Un perfil de las personas mayores en España, 2020. Indicadores estadísticos básicos. *Informes Envejecimiento en red*, 25. Madril. Hemen eskuragarri:
<http://envejecimiento.csic.es/documentos/documentos/enred-indicadoresbasicos2020.pdf>
- Pérez Orozco, Amaia (2006): Amenaza tormenta: la crisis de los cuidados y reorganización del sistema económico. *Revista de Economía Crítica* 5, 8-37.
- Power, Emma R. eta Williams, Miriam J. (2020): Cities of care? A platform for urban geographical research. *Geography Compass*, 14(1), 1-110.
- Precarias a la Deriva (2003): *A la deriva por los circuitos de precariedad femenina*. Madril: Traficantes de Sueños.
- Razavi, Shahra (2007): *The political and social economy of care in a development context. Conceptual issues, research questions and policy options*. Geneva: UNRISD.
- Recio, Carolina et al. (2015) La profesionalización del sector de los cuidados. *Zerbitzuan*, 60, 179-193.
- Ribera Llimos, Gerard (2018): *Analisi i valoració de la implantació de les Superilles a Barcelona*. Universitat Politècnica de Catalunya. Bartzelona. Graduaren Amaierako Lana. Hemen eskuragarri:
<https://upcommons.upc.edu/handle/2117/123581>

- Roca i Escoda, Mireia (2019): Desigualtats de gènere en el sector ocupacional de les cures, in Silvia Carrillo Gómez (ed.), *Abordant la crisi de les cures: polítiques, treballs i experiències locals*, 46-71 orr. Bartzelona: ICPS,
- Rueda, Salvador (2017): Les superilles per al disseny de noves ciutats i la renovació de les existents: el cas de Barcelona. *Papers: Regió Metropolitana de Barcelona. Territori, estratègies, planejament*, 59, 78-93.
- Sagastizabal, Marina (2020): *La triple presencia. Estudio sobre el trabajo doméstico-familiar, el empleo y la participación sociopolítica*. Bilbo: UPV/EHU.
- Sagastizabal, Marina eta Legarreta Matxalen (2016): La triple presencia-ausencia: una propuesta para el estudio del trabajo doméstico-familiar, el trabajo remunerado y la participación sociopolítica. *Papeles del CEIC*, 1(151), 1-29.
- Sagastizabal, Marina eta Luxán, Marta (2015): Género y Uso del Tiempo in: Matxalen Legarreta, (ed.), *Dos décadas de cambio social en la C.A de Euskadi a través del uso del tiempo. Encuesta de Presupuestos de Tiempo, 1993-2013*, 385-423 orr. Vitoria-Gasteiz: Eustat.
- Sánchez González, José Juan eta Giraldo Palacio M^a Elena (2017): La participación ciudadana como mecanismo de colaboración para la construcción de una gobernanza colaborativa, in Julio César Olvera García eta Leticia Contreras Orozco (ed.), *Administración pública y sociedad. Una necesaria relación de proximidad* 227-250 orr. Mexiko: Universidad Autónoma del Estado de México, M.A. Porrúa.
- Sánchez Ramos, Miguel Ángel (2017): Gobierno abierto, una estrategia innovadora para la governance local, in Julio César Olvera García eta Leticia Contreras Orozco (ed.), *Administración pública y sociedad. Una necesaria relación de proximidad*, 31-54 orr. Mexiko: Universidad Autónoma del Estado de México, M.A. Porrúa.
- Serra, Albert (2005): La gestión transversal. Expectativas y resultados. *Reforma y Democracia*, 32, 1-17.
- Speranza, Philip (2016): Urban Ecological Interaction: Air, Water, Light and New Transit at the Human Scale of Barcelona's Superilles. *World Academy of Science, Engineering and Technology International Journal of Urban and Civil Engineering*, 10 (12), 1616-1626.
- Speranza, Philip; Keisler, Ryan eta Vincent May, Jiawei May (2015): Social Interaction and Cohesion Tool: A Dynamic Design Approach for Barcelona's

Superilles. Computational Ecologies: Design in the Anthropocene [Proceedings of the 35th Annual Conference of the Association for Computer Aided Design in Architecture (ACADIA) [Cincinnati, 2015eko urriaren 19tik 25era], 469-481. Hemen eskuragarri:

http://papers.cumincad.org/data/works/att/acadia15_469.pdf

Subirats, Joan (2011): *Otra sociedad, ¿otra política?* Bartzelona: Icaria.

Torns, Teresa (2008): El trabajo y el cuidado: cuestiones teórico-metodológicas desde la perspectiva de género. *EMPIRIA. Revista de Metodología de las Ciencias Sociales*, 15, 53-73.

Trounstone, Jessica (2009): All politics is local? The reemergence of the study of city politics. *Perspectives on Politics*, 7(3), 611-618.

Vega, Cristina, Martínez, Raquel eta Paredes, Myriam (2018): *Cuidado, comunidad y común. Extracciones, apropiaciones y sostenimiento de la vida*. Madril: Traficantes de Sueños.

Web-orriak

Bilboko Udala (2019): Udalaren I. Osasun Plana (2019-2023).

<https://kontuematea.irekia.euskadi.eus/bilbao/es/act/110>

Hernaniko Udala Zaintza HerriLab Hernani.

<https://www.zaintzaherrilab.eus/es/w/hernani-herrilab-cas>

Gipuzkoako Aldundia. Zaintza HerriLab Estrategia.

<https://www.zaintzaherrilab.eus/es>

Lege-esparrua

Espainiako Konstituzioa (1978ko abenduaren 29ko BOE, 311. zk.).

215/2004 Dekretua, azaroaren 16koa, zero eta hiru urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri, eta Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen dekretuaren artikulua batzuk indarrean iraunarazten dituen. (2004ko azaroaren 19ko EHAA, 222. zk.).

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua (abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa).

39/1999 Legea, azaroaren 5ekoa, langilearen familia eta lan-bizitza uztartzea sustatzekoa (1999ko azaroaren 6ko BOE, 266. zk.).

3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa (2011ko azaroaren 14ko BOE, 274. zk., 117217. orritik 117276. orrira).

12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuena (2011ko urriko 7ko BOE, 242. zk., 105335. orritik 105396. orrira).

2/2006 Lege organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa (2006ko maiatzaren 4ko BOE, 106. zk.).

3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako (2007ko martxoaren 23ko BOE, 71. zk.).

27/1983 Legea, Autonomia-elkarte osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundeen arteko harremanei buruzkoa (2012ko apirilaren 17ko BOE, 92. zk., 30060. orritik 30076. orrira).

6/1982 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa (2012ko apirilaren 26ko BOE, 100. zk., 32117. orritik 32126. orrira).

5/1996 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa (2012ko urtarrilaren 20ko BOE, 17. zk., 4564. orritik 4580. orrira).

39/2006 Legea, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa (2006ko abenduaren 15eko BOE, 299. zk.).

12/2012 Errege-dekretua, aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzkoa (2012ko uztailaren 14ko BOE, 168. zk., 50428. orritik 50518. orrira).

185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa (2015eko urriaren 20ko EHAA, 206. zk.). .

Eranskina: Haurtzaroari eta mendekotasunari buruzko eskumenen esparrua

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurraldeek autonomia-erkidego bat osatzen dute, eta, beste erkidego batzuek ez bezala, egitura administratibo berezia dute. Hiru lurralde historiko horiek barne-administrazioarako araudiak sortzeko ahalmena dute, beraz, zainketen arloko laguntzak eta zerbitzuak ez dira banatzen Estatuan banatzen diren modu berean.

Segidan azalduko dugu arauak nola garatzen diren erakundeen eremuan eta nola mugatzen den zainketen arloko esfera. Horren harira, bi eremu nagusi aipatuko ditugu: batetik, zaharren zainketa eta mendekotasun-egoerak; eta, bestetik, haurren zainketa.

Zahartzaroaren eta mendekotasun-egoeren arloko eskumenen esparrua

Zahartzaroaren eta dibertsitate funtzionalaren ondoriozko mendekotasun-egoerak 39/2006 Legearen bidez arautzen dira; Mendekotasun Legea esaten zaio, eta, zehazki, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko legea da. Lege hori 2006ko abenduaren 14an onartu zuten Diputatuen Kongresuan, eta 2007an hasi zen indarrean. Lege hori onartzea eta indarrean hastea aurrekaririk gabeko mugarri bat izan da mendetasunaren arreta arautzeko moduan, prestazioak eta zerbitzuak eskuratzea gizabanakoaren eskubide subjektibotzat hartzen baita.

Xede horretarako, Mendekotasunaren Legean hiru oinarritzko printzipio hauek ezartzen dira:

- 1) Prestazioak unibertsalak eta publikoak izatea.
- 2) Prestazioak baldintza berdinetan eta diskriminaziorik gabe jaso ahal izatea.
- 3) Administrazio publiko guztiek parte hartzea, beren eskumenak gauzatzeko.

Mendekotasun Legeak, halaber, oinarriak ezartzen ditu babes-sistema berri bat sortzeko eta arautzeko. Sistema hori autonomia-erkidego bakoitzeko gizarte-zerbitzuen esparruan txertatuko da, eta Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistema deitu zaio.

Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko legean honela definitzen da mendekotasuna: pertsona batzuek (adina, gaixotasun, desgaitasunen bat edo beste batzuk direla-eta) modu iraunkorrean bizi duten mendekotasun-egoera. Pertsona horiek, autonomia fisiko, mental, intelektual edo sensoriala erabat edo zati batean galdu dute, eta, hartara, beste pertsona batzuen laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarritzko ekintzak aurrera eraman ahal izateko; edo beste laguntza mota batzuk behar dituzte. Pertsona bat mendekotasun-egoeran dagoen jakiteko, arlo horretako profesional batek baloratuko du eskatzailearen egoera, eta horrela zehaztuko da eskatzailearen mendekotasun-maila. Honako irizpide hauei jarraituko zaie:

- *Mendetasun arina (I. gradua): pertsonak laguntza behar ote duen eguneroko bizitzako oinarritzko hainbat jarduera aurrera eramateko, eta hori gutxienez egunean behin, edo tarteka laguntza mugatua behar duen, autonomia pertsonalarekin laguntzeko.*
- *Mendetasun larria (II. gradua): pertsonak egunean bi edo hiru aldiz laguntza behar ote duen eguneroko bizitzako oinarritzko hainbat jarduera aurrera eramateko, baina ez du behar kanpoko zaintzaile batek etengabe laguntzea, edo laguntza-premia zabalak ditu autonomia pertsonalaren arloan.*
- *Mendetasun handia (III. gradua): pertsonak laguntza behar ote duen eguneroko bizitzako oinarritzko hainbat jarduera aurrera eramateko, egunean hainbat aldiz; eta autonomia fisiko, mental, intelektual edo sensoriala erabat galdu duenez, beste pertsona batek lagundu behar dio nahitaez eta etengabe, edo laguntza orokorra behar du autonomia pertsonalik ezaren ondorioz.*



Legeak autonomia-erkidegoei eskuordetzen die prestazioen eta zerbitzuen antolaketa. Horretan oinarrituta, Eusko Jaurlaritzak 2008ko abenduan onartu zuen 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. Lege horren arabera, Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta udalen artean banatzen dira eskumenak.

Udalak	Foru-aldundiak*
Oinarrizko premiei arreta ematen diete, eta sistema sartzeko atea dira. I. graduako mendekotasuna duten pertsonen zuzendutako prestazio eta zerbitzu gehienak kudeatzen dituzte. Mendekotasunaren arloan: • Zerbitzu propioak antolatzeko erregelamenduzko ahala • Bere eskumenekoak diren zerbitzuak planifikatzeko • Oinarrizko gizarte-zerbitzuak sortzeko, antolatzeko eta kudeatzeko • Lehen mailako arretaren zerbitzuak ematea • Beren eskumeneko zerbitzuen prezio publikoak ezartzea Oinarrizko gizarte-zerbitzuak sortzeko, antolatzeko eta kudeatzeko esparruan: • 5000 biztanletik gora duten EAEko udal guztiek oinarrizko gizarte-zerbitzu propioa eduki behar dute. • Udalerrri bateko biztanleria 5000 kopurutik beherakoa bada (3000, landa-eremuetan edo eremu bereziki behartsuetan), zerbitzua eskaini behar da, baina beste udalerrri batekin elkartuta eskaini ahalko da.	Gutxienez, II. graduako mendekotasuna duten pertsonak baloratzen dituzte, eta arreta ematen diete. Honako zerbitzu hauek kudeatzen dituzte: • Mendekotasunaren balorazioa. • Egunko/gaueko zentroak eta egoitza-zentroak. • Prestazio ekonomikoak. • Familian zaintzeko prestazio ekonomikoa eta zaintzaile ez-profesionalen zuzendutako laguntza. • Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa. • Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa. Hona hemen beren eskumenetako batzuk: • Zerbitzu propioak antolatzeko erregelamenduzko ahala. • Beren eskumeneko zerbitzuen plangintza egitea lurralde-eremuan. • Bigarren mailako arretaren gizarte-zerbitzuak ematea. • Beren eskumeneko zerbitzuen prezio publikoak ezartzea. • Beren lurraldeetan kokatutako zerbitzu, zentro eta erakunde pribatu baimena eta homologazioa. * Lurralde historiko bakoitzean araudi propioa ezarri da.

Eusko Jaurlaritza:

Honako eskumen hauek bere gain hartzen ditu:

- Gizarte-zerbitzuen arloko legegintza-ekimena, arau-garapena eta zuzeneko ekintza;
- Gizarte-zerbitzuak antolatzeko erregelamenduak egiteko ahala, Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren lanketan eta onarpenean;
- Erabiltzaileen parte-hartze ekonomikorako irizpide orokorrak arautzea (eta foru-aldundi bakoitzak horien arabera ezartzen ditu prezioak);
- Sistemaren koordinazio orokorra egitea.

Eskumen bakarra:

- Telelaguntza kudeatzen du.

Hautzaroari buruzko eskumenen esparrua:

Hautzaroa bereziki babesten da nazioarteko zein estatuko mailetan. Haurrei lotutako eskubideak Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Erakundearen Konbentzioan ezarritakoaren arabera jasotzen dira. Konbentzioan onartzen dira adingabearen interes gorena, hezkuntzarako eskubidea, diskriminaziorik ez jasateko eskubidea, haiei eragiten dieten erabakietan parte hartzeko eskubidea, bai eta Estatuek beren eskubideak ziurtatzeko duten betebeharra ere.

Espainiako Konstituzioan (1978koan) ezartzen dira hautzaroari buruzko zenbait alderdi:

- Haurrak nazioarteko legeek ezarritakoaren arabera babestu behar dira; horrela, botere publikoek bermatu behar dituzte seme-alaben babes osoa, seme-alabak legearen arabera berdinak izatea, seme-alabatasuna edozein dela ere, eta amen babes osoa, egoera zibila alde batera utzita;
- Gurasoei eginkizun nagusi bat ezartzen die: era guztietako laguntza ematea seme-alabei, hala ezkontzakoei nola ezkontzatik kanpokoei, adingabeak diren bitartean, baita gainerako kasuetan ere, legeak hala agintzen badu.

Haurren zaintzari lotutako zerbitzuak eta prestazioak hainbat mailatan hedatzen dira: estatuan, autonomia-erkidegoetan eta, azkenik, foru- eta udal-mailatan.

Lehenik eta behin, lana eta familia bateragarri egiteari dagokionez, Gizarte Segurantzak jaiotzagatiko lizentziak eta baimenak arautu eta kudeatzen ditu, ordainsariarekin zein ordainsaririk aitortu gabe.

Kontziliazioari buruzko politiken eta prestazioen aurrekariak honako lege hauetan ezartzen dira: langileen familia eta lana bateragarri egiteko legean (39/1999 Legean) eta emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko lege organikoan (3/2007 Legean); azken lege horretan sustatzen da familia-betebeharrak gain hartzeko erantzunkidetasun handiagoa.

Halaber, aipatzekoa da “Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurrien errege-lege dekretua” (6/2019 Errege-lege dekretua). Errege-lege dekretu horretan amatasun- eta aitatasun-prestazioak prestazio bakarrean bateratzen dira, eta “adingabearen jaiotza eta zaintza” deitzen zaio. Halaber, “bularreko haurraren zaintza erantzunkidea”ri buruzko prestazioa indarrean sartu da.

Lehenik eta behin, amatasunagatiko eta aitatasunagatiko soldata-konpentsazioa duten baimenak jasotzen dira, baita gurasoen eszedentziak ere, soldata-konpentsaziorik gabe, haurraren hiru urteko adinera arte. Gaur egun, gainera, familia eta lana uztartzeari buruzko prestazioak ere arautzen dira:

- 1) Adingabearen jaiotzagatiko eta zaintzagatiko baimen ordaindua, guraso bakoitzarentzat.
- 2) Ordaindu gabeko guraso-baimenak (lan-eszedentziak), hiru urte bete arte.
- 3) Haurdunaldiko eta edoskitzaroko arriskuaren aurreko prestazioak.
- 4) Minbizia edo beste gaixotasun larri bat duten adingabeak zaintzea.
- 5) Jaiotzagatiko eta adingabea zaintzeagatiko prestazioak.
- 6) Bularreko haurraren zaintzaren erantzunkidetasuna

Autonomiaren eremuan, Eusko Jaurlaritzan zenbait laguntza garatu dira familia eta lana uztartzeko.

164/2019 Dekretua, urriaren 22koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa. Honako hauek aintzat hartzen dira, bereziki:

- Lan-eszedentzian dauden langileak, jaiotzagatik edo urtebetetik beherako haurra zaintzeagatik gurasoek jasotzen dituzten kotizaziopeko prestazioen aldiak parekatzeko.
- Guraso bakarrekoak diren langileak, zeinek eszedentzia hartu baitute semearen edo alabaren bizitzako lehen urtean.
- Seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileak.
- Mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileak.
- 0-3 urteko seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko.
- Seme-alabak edo mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileak ordeztzeko (Lanbide).

Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoak haurrak babesteko gizarte-zerbitzuen plangintza egiteko eskumena dauka. Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko legean haxe ezartzen da:


“Bereziki kontuan hartu behar dira gizarte-zerbitzuak oinarritzen dituzten eskumenak, baliabide, jarduera, prestazio edo ekipamendu multzotzat hartuta; zehazki, komunitatean gizabanakoen eta taldeen ongizatea eta garapena sustatzen dute, eta horiek gizarte-ingurunera egokitzen laguntzen dute. Nabarmentzekoa da haurren eta nerabeen arreta eta babesa direla gizarte-ongizateko politiken funtsezko kapituluak ” (3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko).

Hezkuntzaren eremuan, nabarmentzekoa da haurrentzako hezkuntza- eta laguntza-arretaren erregulazioa, haur-eskolak sortuz, adibidez.

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak –12/2009 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzari buruzkoa, eta haren ondorengo aldaketa, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoaren bidez–ezartzen du autonomia-erkidegoei dagokiela beren estatutu-eskumenak baliatzea hezkuntzaren arloan. Azaroaren 16ko 215/2004 Dekretuak (12/2004 Lege Dekretuak) ezartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoan 0 eta 3 urte bitarteko haurrei hezkuntza- eta laguntza-arreta ematen dieten eskolen gutxieneko baldintzak, eta Eusko Jaurlaritza da haur-eskolak baimentzeko, sortzeko eta abian jartzeko eskaerei buruz ebazteko organo eskuduna.

Foru-aldundiek dituzte babesgabetasun-egoeran dauden adingabeen babesarekin eta tutoretzarekin lotutako alderdien gaineko eskumenak.

Azkenik, Gizarte Zerbitzuen Lege Orokorrean jasotzen den bezala, udalerrien eta udalen eskumena da oinarritzko gizarte-zerbitzuak garatzea, arreta komunitarioa eta haurren arrisku- eta babesgabetasun-egoeren detekzio goiztiarra antolatzeko (beste eremu batzuekin koordinatuta, hala nola osasunarekin edo hezkuntzarekin).




Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak arauen bidez garatzen du arrisku- edo desanparo-egoeran dauden haur eta nerabeak babesteari eta arau-hausle adingabeei gizarte- eta hezkuntza-arreta emateari buruzko guztia. Horrela, hauxe ezartzen du:

- Oinarrizko gizarte-zerbitzuek haurtzaroko arrisku-egoerak jaso, ikertu, baloratu eta bideratu behar dituzte, eta, beharrezkotzat jotzen badute, komunitate-eremutik esku hartu behar dute.
- Uste baldin bada haurren babesgabetasun-egoera larria dela, esku-hartze espezializatua behar duela edo adingabea bere familia-eremutik bereizi behar dela, haurrak eta nerabeak babesteko zerbitzu espezializatura bideratu beharko da.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan hauxe aipatzen da haurtzaroari buruz:

- 1) Babesgabetasun-egoeran dauden adingabeentzako egoitza-zentroak.
- 2) Babesgabetasun-egoeran dauden haur eta nerabeentzako gizarte-informazioko zerbitzua.
- 3) Familia-harrerari eta adopzioari buruzko zerbitzuak.



Zainketen
hirirako
trantsizioa egiten

Transitando
hacia la ciudad
de los cuidados



